



Puntu berdeak

Ingurumen Adierazpena

2012ko Urtarrila-Abendua



OSAKIDETZAKO BiE
COMARCA BILBAO

AURKIBIDEA

1 AURKEZPENA

- 1.1 Sarrera**
- 1.2 EMAS erregistroa eta Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (IKS) irispena**
- 1.3 Zuzendaritzaren aurkezpena**
 - 1.3.1 Comarca Bilbao- Bilbo Eskualdea: BiE**
- 1.4 Ematen dugun zerbitzuaren deskribapena**

2 INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMA

- 2.1 Ingurumen-politika**
- 2.2 2.2.- ingurumena kudeatzeko sistemaren aurkezpen laburra:**

3 BIE – BILBO ESKUALDEKO INGURUMENAREN GAINEKO JOKABIDEA

- 3.1 Ingurumen alderdiak**
- 3.2 Ebaluazio-irizpideak**
- 3.3 Ingurumen-alderdi esanguratsuak**

4 XEDEAK ETA HELBURUAK. INGURUMENAREN KUDEAKETARAKO PROGRAMA (Ekintza planak)

5 INGURUMEN-JOKABIDEA

- 5.1 5.2. Oinarrizko adierazleak eta beste ingurumen-adierazle batzuk**
- 5.2 5.2. Arau-xedapenen arabera ingurumen-jokabideak**
 - 5.2.1 Ingurumenaren eremuan aplikagarri diren legezko baldintzak**
 - 5.2.2 Legezko baldintzak eta ingurumen izaerako beste baldintza batzuk betetzea**

6 INGURUMENARI LOTUTAKO BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA

- 6.1 Ingurumenarekiko jokabidea erakundearen beste eremu batzuetan**
- 6.2 Komunikazioa eta informazioa herritarrei eta interesatutako beste alderdi batzuei**
- 6.3 Hornitzaileen jokabidea ingurumenari dagokionez**
- 6.4 Ingurumena kudeatzeko inbertsioak**
- 6.5 Ingurumenari lotutako gertaerak**
- 6.6 2013rako erronkak**

7 DATUAK ZENTROKA (ERANSKINA)

8 EGIAZTATZEA ETA BALIOZTATZEA

Ingurumen Adierazpena

2012ko Urtarrila-Abendua

AURKEZPENA

1.1 SARRERA

Erakundeak beren borondatez Europako Erkidegoko Ingurumen-Kudeaketa eta Auditoretzako EMAS Sistemari atxikitzea ahalbidetzen duen Europako CE 1.221/2009 Araudiak ezarritakoa betez, eta biztanleei oro har eta interesdun beste alderdi batzuei ingurumenarekiko eraginari eta jokabideari buruzko informazioa emateko asmoz, Comarca Bilbao-Bilbo Eskualdeak (**BiE**) Ingurumen-adierazpen hau egiten du (2012ko datuak).

Beraz, adierazpen honen abiapuntu moduan, biztanleei, orokorrean, eta bestelako alderdi interesatuei ingurumen-jokabidearen arloko helburuak eta eboluzioa komunikatu nahi zaizkie, Osakidetza (CNAE 862 kodea) zerbitzu sanitarioetako erakunde publikoa den Bilbo Eskualdean (BiE**) garden jokatu nahi baitugu egindako kudeaketari buruzko komunikazioan.**

Eranskineko 7. puntuan (datuak osasun zentroka), BiE osatzen duten zentroetako bakoitzak daukan ingurumenarekiko jokabidea deskribatzen da

Hauexek dira harremanetarako datuak, non **BiE**ren ingurumenari buruzko adierazpena jendaurrean jartzen den:



Kale Nagusia 62, 2. solairua 48011 - Bilbo

Telefono-zenbakia: 94 400 73 00

Faxa: 94 400 73 77

Helbide elektronikoa:

andres.villarpizarro@osakidetza.net

mangeles.mateosvaras@osakidetza.net

Harremanetarako pertsonak:

- Andrés Villar

- Marian Mateos

1.2.- EMAS EREGISTROA ETA INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN (IKS) IRISPENA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen-Sailburuordetzak 2009ko urtarrilaren 26an erregistratu zuen Bilbo Eskualdea (BiE) EMAS erregistroan, ES-EK-000046 zenbakiarekin, "Lehen Mailako Arretako zerbitzuak (Kudeaketa administratiboa eta Asistentzia Sanitaria) ematea" irispenerako, jarraian zehazten diren lekuetan garatzen dena:

ZENTROAK	M2	Helbidea	Erabiltzaileko hitzordu kopurua***	
			31.12.011	31.12.012
BASURTU O.Z.	1.500	Iparraldeko Lorategiak, 1 - 48013	149.753	146.692
ALTAMIRA O.Z.	320	Altamira, 11 - 48013	36.789	37.203
**BEGOÑA OZ	1.100	Begoñako Andra Mari kalea, 32 - 48006	174.636	181.639
SAGARMINAGA OZ	410	Sagarminaga, 56 - 48004	98.835	105.747
**Alde Zaharra OZ	950	Erronda kalea, 6 - 48006	105.302	104.863
* DEUSTUKO OZ	2.375	Luis Power, 18 - 48014	397.459	354.995
ARANGOITI OZ	400	Berribidea, 50 - 48014	41.249	41.617
EL KARMELO OZ	450	Haroko plaza, 2 - 48004	121.652	123.489
**ETXANIZ OZ	2.000	Etxaniz suhiltzailearen plaza, 1 - 48010	339.898	342.485
GAZTELEKU OZ	1.200	Vianako Printzearen kalea, 5 - 48007	201.227	206.663
*INDAUTXU OZ	2.100	Areiltza dk. 12, -48011	481.441	401.752
**J. S. BURUAGA OZ	2.050	Henao, 7-9 - 48009	104.948	108.723
MESEDEETAKO OZ	350	Luis Iruarizaga, 1 - 48003	89.977	82.343
SARALEGI OZ	291	Saralegi plaza, 8 - 48003	-	7.423
ABUSUKO OZ	600	Ibaialde z/g - 48003	110.471	108.613
LARREAGABURU OZ	700	Indalecio Prieto, 11, 48004	110.022	113.371
**OTXARKOAGA OZ	1.200	Zizeruene, 1 - 48004	153.626	157.959
*ERREKALDE OZ	2.100	Larraskitu errep., 2 - 48002	390.349	407.757
SAN ADRIAN OZ	512	Juan de Garay, 51-53 - 48003	101.821	161.605
SAN INAZIO OZ	1.800	Larrakotorrea, 9 - 48015	239.614	239.445
*SANTUTXU OZ	1.400	Sorkunde, 3 - 48006	249.122	266.329
TXURDINAGA OZ	1.900	Txomin Garat, 16 - 48004	158.897	166.541
ZORROZA O.Z.	880	Zorrotza-Kastrexana errep. 20-22 atzealdea 48013	150.390.	127437
ALONSOTEGI OZ	530	Errotetabidea, z/g - 48810	34.443	32.188
ZURBARAN OZ	550	Zumalakarregi etorb., 99 - 48007	112.590	115.251
Zentro-kopurua: 25	29.168		4.151.568	4.142.187
ESKUALDEKO ZUZENDARITZA	1.500	Kale Nagusia, 62 - 48011	57	57


* Anbulatorioetan kokatutako osasun-zentroak.

** Arreta espezializatuko zerbitzua daukaten osasun zentroak.

***Erabiltzaileen hitzorduak + eskualdeko lanpostu-zerrenda: adierazleak kalkulatzeko baliatutako datua

1.3 ZUZENDARITZAREN AURKEZPENA

Bilbo Eskualdea – BiE zerbitzu sanitarioetako erakundea da, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko zuzenbide pribatuko Ente Publikoa den Osakidetza sarekoa.



XEDEA

"Erakunde sanitario publikoa gara, Osakidetzakoa, Bilboko, Alonsotegiko eta beste udalerrri batzuetako auzo mugakide batzuetako biztanleen osasun-beharrei erantzuteko eginkizuna dugunok.

Horretarako, zerbitzu sanitarioak eskaintzen ditugu, osasuna sustatu, zaindu eta hobetzera eta gaixotasuna prebenitzera zuzenduak; beti ere, Osakidetzako gainerako asistentzia-mailekin, eragile sozialekin eta inplikaturako erakundeekin elkarlanean.

Gure jarduera printzipio hauetan oinarritzen dugu: **unibertsaltasuna, ekitatea eta jasangarritasuna**"

IKUSPEGIA:

Erreferentziako erakunde izan nahi dugu, eta herritarren, gure profesionalen eta beste interes-talde batzuen balorazio positiboa jaso, honako hauengatik:

- Parte hartzeko estrategiak bultzatzea, herritarrak beren osasuna hobeto kudeatzeko gaitzeari begira.
- Profesionalak kudeaketan eta hobekuntzan integratzea, beraien garapen pertsonal eta profesionala ingurune motibatzaile eta seguru batean sustatuz.
- Eraginkorra, gardena eta arduratsua izatea, baliabideak erabiltzeari dagokionez.
- Ikerkuntza eta berrikuntza bultzatzea, osasun arloko emaitzak hobetzeari begirako helburuak eta jarduerak garatzeko.

- Erakundeekin eta gizarteko beste ordezkari batzuekin lankidetzarako jarrera agertzea, eta gure hobekuntza-estrategietan partaide egitea.

BALIOAK:

Ikuspegia gauzatzeko eta erronka berriei heltzeko, jokabide hauek izan behar ditugu:

- Jarrera positiboa, berritzailea eta aldaketari irekia.
- Osasun arloko emaitzak hobetzeko orientazioa.
- Jokabide profesional, etiko eta arduratsua, baliabideak kudeatzeari dagokionez.
- Konpromisoa eta jarrera humanoa, hurbila eta begirunetsua, herritarren osasun-beharrei erantzun egokia emateko.
- Talde-lana eta profesionalen eta beste erakunde / instituzio batzuen arteko harremana, gure estrategiak eta helburuak lortu ahal izateko.


1.3.1 COMARCA BILBAO – BILBO ESKUALDEA: BiE

Guztira, 26 lantoki ditugu, 25 osasun-zentrotan banatuta dauden Lehen Mailako Arretako 20 unitatetan egituratuta. Atentzioa astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 20:00etara, 25 Osasun-Zentroetan ematen da. Gainerako orduetan, Etengabeko Arretako Guneak arduratzen dira; kopurua beharren arabera egokitzen da. Bestalde, Bilboko Kale Nagusiko 62an, Eskualdeko Zuzendaritzaren egoitza dago. 2011tik Urbi-Basauriko zentroa Bilbo Eskualdeari atxiki zaio, eta datozen urteetan ingurumen kudeaketaren sistemaren irispenean sartuko da.



Zuzendaritza-egitura eta egitura teknikoa dugu Eskualde osorako. Laguntzako egitura gisa, zuzendaritzetan dauden profesionalen gain, honakoak dauzkagu: Prebentzioko Oinarrizko Unitatea, Eskolako Osasun Zerbitzua, gizarte langile 2 eta Bezzeroaren Arretarako 4 zerbitzu; azken horiek anbulatorioetan daude, non Lehen Mailako Arreta eta Arreta Espezializatua konpartitzen diren.

Zuzendari Gerentea da Erakundeko arduradun gorena, eta, ondorioz, gizarte-, ekonomia- eta ingurumen eremuekin loturiko alderdi guztien liderra da, jardueren plangintza eta zehaztapena gainerako liderren edota unitate-buruen esku uzten dituelarik.



1.4. EMATEN DUGUN ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Gure bezeroei ematen dizkiegun osasun zerbitzuak **Zerbitzu Zorroan** jasotzen dira:

ZERBITZU SANITARIOEN ZORROA:

1. Oinarrizko Prozedura Diagnostikoak
2. Lehen Mailako Arretatik eskura daitezkeen Prozedura Diagnostikoak
3. Prozedura Terapeutikoak
4. Prebentzioa, Osasunaren sustapena, Arreta Familiarra eta Komunitarioa
5. Informazioa, Jagoletza Epidemiologikoa
6. Berariazko arreta Arrisku-Talde espezifikoak:
haurrak, nerabeak, emakumeak, helduak, adinekoak, etxeko indarkeria eta tratatu txarrak adin guztietan, Arreta Aringarria gaixo terminalei.
7. Arreta Osasun Mentalari.
Arreta aho-hortzen osasunari

Zerbitzu-zorro hau urtero berrikusi, berretsi, hobetu edo berritzen da.

Ingurumen-kudeaketa BiEren ekarpen aktiboa eta borondatezkoa da, **lehian duen egoera eta balio erantsia** hobetzeko.

Kudeaketari buruzko kontzeptu honetan, beraz, enpresa kudeatzeko hainbat jardunbide, estrategia eta sistema sartzen dira, **ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-alderdien artean oreka** berria lortu nahi dutenak. **2013-2016 Plan Estrategikoaren** barruan jasotako alderdiak.


2. INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMA

2.1. INGURUMENERAKO POLITIKA

BiEko zuzendari gerenteak eta ingurumeneko arduradunak politika hori zuzentzen eta zehazten dute, erakunde osoan ezar dadin, eta **Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (IKS) helburuak** ezartzeko erreferentzia dira.

BiEren ingurumen-politika printzipio hauetan zehazten da:

- Politikaren esanahia **komunikatzea**, pertsonal guztiak ulertu eta eraginkortasunez bete dezan.
- Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat **zehaztu eta abiaraztea**, Ingurumenaren Kudeaketaren Eskuliburuan jasota dagoena.
- Giza baliabideak eta baliabide materialak ezarritako eskakizunak betetzera **bideratzea, eta bezeroak eta interesdun alderdiak ingurumen-gaiaz jabearaztea eta beraien gogobetetasuna sustatzea.**
- Ez-adostasunak minimizatzeko nahikoa baliabide esleitzea.
- **Langile guztien informazioa eta partaidetza bermatzea**, gure jarduerak ingurumenean duen eraginaz jabetu daitezen, betiere kutsadura prebenitzeko eta baliabide naturalen aurrezpena sustatzeko guztiok daukagun konpromisoa ahaztu barik. Bereziki, baliabide natural urriei erreparatuko diegu.
- Beharrezko aginpidea eskuordetzea prozesuen arduradunei, **sistema arauaren arabera mantentzen dela ziurtatzeko**; eta sistemaren funtzionamenduaren berri eman beharko zaio nahitaez zuzendari gerenteari **etengabeko hobekuntzarako** neurri gisa.
- **Ingurumenerako politika interesdun alderdien eskura jartzea.**
- **Indarreko arauak eta legeria betetzen** direla bermatzea, baita erakundeak hitzartzen duen beste edozein konpromiso ere.



Ingurumena kudeatzeko taldeak ezarritako politika dokumentatu, abiarazi eta egunean izango du, urtero aztertuz, gure jardueren garapenari egokitu ahal izateko.

BiEko profesional guztion erantzukizuna da ingurumenerako politika hau nahitaez betetzea.

Bilbon, 2007ko urriaren 22an

JESÚS LARRAÑAGA GARITANO

BILBO ESKUALDEKO ZUZENDARI GERENTEA

Zuzendaritzak balekotzat jo du 2007ko Ingurumen-adierazpena.


Ingurumen Adierazpen honen gaineko informazioa bermatzeko, karteletan jarriko da zentro guztietan, pertsonalari, herritarrei eta kontratei irisgarriak zaizkien tokietan; horrez gain, euskarri informatikoan ere jarriko da, Eskualdeko intranetean, EZAGUTZA, HOBE+ eta Pro Osakidetza ezagutza-plataformetan, baita Osakidetzako webean bertan ere.

2.2.- INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMAREN AURKEZPEN LABURRA:

BiEk Ingurumena Kudeatzeko Sistema ezarri du UNE_EN ISO 14001:2004 arauaren eta Europako 1221/2009 (EMAS) Araudiaren betebeharrekoetan oinarrituta, ingurumen-politika betetzen dela bermatzeko.

Ingurumena Kudeatzeko Sistema BiEren ingurumen-jokabidea hobetzeko ezarri da. Helburu orokor hau lortzeko, Ingurumenaren Kudeaketarako Arduradunak edo eskuordetutako pertsonak aldiro aztertu eta ebaluatzen dute sistema, hobekuntza-aukerak identifikatu eta gauzatu ahal izateko.

Sistema **PDCA** etengabeko hobekuntza-zikloan oinarritzen da.



Ingurumenaren Kudeaketarako gure Sistemaren eskema dokumentala grafiko honetan islatzen da:



1. MAILA: Ingurumenarekiko konpromisoa
2. MAILA: Planteamendua eta Erantzukizuna zehazten ditu
3. MAILA: NOR, ZER eta NOIZ zehazten ditu
4. MAILA: NOLA galderari erantzuten dio
5. MAILA: Sistema indarrean dagoela frogatzen du

Sistema ezartzeko, giza baliabideak eta erantzukizun zehatzak esleitu behar izan dira, sistemak behar bezala funtzionatuko duela bermatzeko.

3. BiE – BiLBO ESKUALDEKO INGURUMENAREN GAINEKO JOKABIDEA

3.1 **INGURUMEN ALDERDIAK**

BiE – Bilbo Eskualdea bere jarduera eta zerbitzuetatik eratorritako ingurumen-eraginak identifikatzeko beharrianaz jabetzen da, bere egungo egoera ezeze, iraganekoa eta etorkizunekoa ere aintzat hartuz. Horregatik, zuzeneko eta zeharkako alderdien identifikazioa egin du, bai egoera normaletan bai ezohikoetan edo emergentziakoetan, “SGA-PC-12 Ingurumen Alderdien Identifikazioa” prozeduraren arabera, eboluzioa kontrolatzeko eta ingurumen-politikaren egokitasuna egiaztatzeko.

3.2 **EBALUAZIO-IRIZPIDEAK**

LMUetako kudeaketako ingurumen-alderdiak behin identifikatu ondoren, sistemaren arduradunak ingurumen-alderdiak ebaluatzen ditu Ingurumen-Alderdien Ebaluazio-Taulen arabera (IKS-KP-12 prozedurari erantsitako agiria), ingurumenaren gain horietatik zeinek daukan **eragin garrantzitsua** zehaztu eta berorren kontrola hobetzeko.

Ohiko eta ezohiko egoeretan **zuzeneko eta zeharkako alderdiak** ebaluatzeko, bi irizpide hartzen dira kontuan:

- o Alderdiaren **Tamaina** (alderdia zenbatzea: kopurua, instalazioen funtzionamendu orduak, etab.).
- o Alderdiaren **izaera** (legezko mugetara hurbiltzea, ingurumen-eragina,...).

Emergentzia-egoeretako ingurumen-alderdiei dagokienez, irizpide hauek izango dira kontuan:

- o Emergentzia gertatzeko **probabilitatea** (emergentzia zenbat aldiz gertatu den abiapuntu hartuta).
- o Emergentzia bakoitzaren balizko eraginaren **larritasuna**.

Kasu bietan, lortutako balioen biderketak Esangura (E) maila emango du:

Ebaluazioaren balioa, gehieneko kalifikazioaren %40 (hots, 4 puntu edo gehiago) edo handiagoa bada, alderdia **ESANGURATSU**tzat hartuko da eta lehenetsi egingo da hobekuntzarako helburuak esleitzerakoan.

Esangura-maila	
$E=1$	Baxua
$1 < E \leq 3$	Tartekoa
$E \geq 4$	Altua

Aurretiaz deskribatutako irizpideak aplikatu izanaren azken emaitzak **BiE** – Bilbo Eskualdeari ahalbidetzen dio ezagutzea, batetik, bere jarduerak ingurumenari (ingurumen-alderdien identifikazioa) nola eragiten dion eta, bestetik, zein mailatan (ingurumen-alderdi esanguratsuak eta ez-esanguratsuak) eragiten dion, informazio hori baliatuz, ingurumen-programak ezartzeko (ingurumenaren gaineko helburuak eta xedeak).

3.3. INGURUMEN-ALDERDI ESANGURATSUAK

2011ko datuetan oinarriturik, Ingurumen-Alderdien Ebaluazioa aurretik deskribatutako prozeduraren arabera eginda, hurrengo hauek dira **esanguratsuak**, eskualde mailan:

- RAEEko hondakinak (inprimagailuak, ordenagailuak, etab.).
- Hondakin zorrotzak eta puntadunak.

**Ikusi Eranskinean Eskualdeko ingurumen-alderdien ebaluazio-taula*

Zentro batzuetan esanguratsuak direnak: (Ikusi zentroetako datu-eranskina)

- Pilen eta baterien kontsumoa
- Argindarraren kontsumoa
- Galdarako gas-kontsumoa.
- RAEEko hondakinak (inprimagailuak, ordenagailuak, etab.).
- Hondakin zorrotzak eta puntadunak.
- Lanpara- eta fluoreszente-hondakinak.
- Hiri-hondakin ez-bereiziak
- Kontsumitutako argindarrak sortutako zuzeneko isuriak.
- Erabiltzaileek ingurumenarekiko daukaten jokabidea

Hurrengo taulan, identifikatutako alderdi esanguratsuak erakusten dira, zentroka:

Ingurumen-alderdia	ALONSOTEGI	ALTAMIRA	ARANGOTI	BASURTU	BEGOÑA	B.ETXANIZ	ALDE ZAHARRA	DEUSTO	ZUZENDARITZA	GAZTELEKU	INDAUTXU	JS BURUAGA	KARMELO	HESEDEETAKO	ABUSU	LARREAGABURU	OTXARKOAGA	ERREKALDE	SAGARMINAGA	SAN ADRIAN	SAN INAZIO	SANTUTXU	TXURDINAGA	ZORROZA	ZURBARAN
Folioak	3	3	1	3	3	1	3	1	1	1	1	3	1	3	1	1	3	1	1	3	1	3	1	3	2
Inprimagailufotokopiagailuetakotoner ra / drum	1	1	1	1	1	2	1	1	1	1	2	1	1	1	1	1	3	3	1	3	1	2	3	1	2
Pilak eta bateriak	2	2	6	2	2	2	2	2	2	2	2	6	6	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	6	2
Inprimagailuetako kartutxoak	1	3	1	3	1	1	1	1	1	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	3	1	1
MEDIKAMENTUAK	2	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
APOSITUAK	2	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
TIRAK	2	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
ORRATZ, XIRINGA, TUTUAK	2	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
BENDAK ETA GAZAK	2	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
BEST. MATERIAL SANTARIOA	2	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
BEST. MATERIALA	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Desinfekt. produktuak (instru)et	1	1	3	1	1	1	1	1	0	1	2	1	1	2	1	1	3	1	2	1	1	2	1	2	1
Sareko ura	3	1	1	2	1	1	1	1	1	1	2	3	2	1	3	1	1	1	3	1	1	1	1	1	2
Argindarra	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	4	2	2	2	2	6	4	4	2	2	2
Galdarako gasa	0	3	9	3	3		3	3		3	3	0	0	3	3	3		3	9	3	3	3	3	3	0
Galdarako gasolioa						3			3								3								
Ibilgailuetarako erregeia									3																
RAEE (Inprim., ordenag. etab.)	3	3	3	3	3	3	9	3	3	3	9	9	6	3	9	3	9	3	3	3	3	3	3	3	0
Pilak eta bateriak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Erradiografikak	1	1	1	1	1	1	1	1	0	1	1	1	1	1	1	2	1	1	1	1	1	1	1	1	1
Ehakitzaileak eta zorroztzak	6	6	6	9	3	6	3	3	0	3	3	6	9	9	3	6	6	6	6	9	3	9	3	3	3
Lanpara fluoreszentek	3	9	3	3	9	3	3	3	3	9	9	9	3	3	3	3	3	3	9	9	3	9	3	3	3
Zitostatikoak	1	1	1	1	1	1	1	1	0	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
Iraungitako medikamentuak	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Garbiketako ontzi arrisugarriak	3	3	0	0	3	3	0	3	0	3	0	3	3	3	3	0	0	3	3	0	3	3	0	3	3
Tinta eta toner kartutxoak	1	1	3	3	3	3	2	3	3	2	3	3	3	1	1	3	3	1	1	3	1	3	3	1	1
Papera eta kartoia	1	1	2	3	1	1	3	2	1	2	1	1	2	1	1	3	1	3	1	3	1	3	1	1	1
Hondakin higienikoak (komunak)	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Hiri-hondakinak, bereizi gabe	2	6	2	2	2	6	2	6	2	4	2	2	2	2	2	4	4	2	2	2	6	4	2	2	2
Ur sanitarioak	3	1	1	2	1	1	1	1	1	1	2	3	2	1	3	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
Kanpora igorritako zarata	0	0	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Galdarako isuriak	0	1	3	1	1	1	1	1	2	1	1	0	0	1	1	1	1	1	3	1	1	1	1	1	0
Kontsumitutako argindarrak eragindako isuriak	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	4	2	2	2	2	6	6	4	2	2	2
Eraikuntza-hondakinak	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	0	2	0	2	2	2	2
Hondakin handiak (altzariak)	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	0	2	0	2	2	2	2
Erabiltzaileen ingurumenarekiko jokabidea	2	2	2	2	2	4	2	4	2	2	2	6	2	2	2	2	2	4	2	2	2	2	2	2	2
Hornitzaileen ingurumenarekiko jokabidea	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Kanpoko analisi laborategiko hornitzaileen ingurumenarekiko jokabidea	2	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Lehen Mailako Arretakoa ez den pertsonek ingurumenarekiko jokabidea	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2	2

Ondoko taulan, 2012an Eskualdeko zentroetan identifikatutako ingurumen-alderdi esanguratsuak azaltzen dira, 2011ko datuetatik abiatuta, baita horiek in lotutako eraginak ere.

INGURUMEN-ALDERDI ESANGURATSUA	INGURUMEN ERAGINA	LOTZEN ZAION HELBURUA
Pilen eta baterien kontsumoa	Baliabide naturalen murrizketa. Geuk aitortu beharreko erantzukizuna, produktu horiek fabrikatzeko prozesuetako hondakinak, isuriak eta hondakin-uren isurketak gehitzeari dagokionez.	Pilen kontsumoa %1 murriztea Zentroak: Arangoiti, Buruaga, Karmelo, Zorrotza
Argindarraren kontsumoa	Baliabide naturalen murrizketa. Isuri atmosferikoak (berotegi-efektua, berotze globala)	Argindarraren kontsumoa %0,2 murriztea Zentroak: San Adrian, San Inazio, Abusu
Berogailuetako gas kontsumoa		Gas-kontsumoa %0,2 murriztea Zentroak: Sagarminaga
RAEeko hondakinak (inprimagailuak, ordenagailuak, etab.).		RAEeko hondakinak (aparatu elektronikoak) %2 murriztea Zentroa: Alde Zaharra, Abusu, Indautxu
Hondakin zorrotzak / puntadunak (biosanitarioak)	Paisaiaren kalitatea gutxitzea hondakinen pilaketaren ondorioz, energia-kontsumoa berorren kudeaketan. Ingurumenean substantzia arriskutsu aktiboak sartzea	Hondakin biosanitarioak %1 murriztea Zentroak: Karmelo, Mesedeetakoa, Etxaniz, Suhiltzailea, Otxarkoaga, Errekalde, San Adrian, Buruaga, Altamira, Alonsotegi, Arangoiti, Basurtu, Larreagaburu, Santutxu
Lanpara-fluoreszente-hondakinak.		Lanpara-hondakinak %2 murriztea Zentroak: Begoña, Txurdinaga, Gazteleku, Indautxu
Hiri-hondakin ez-bereiziak		Hondakinen bereizketa hobetzea "zabor orokor" gisa bildutako ondakinen kantitatea %1 murriztea) Zentroak: Larreagaburu, Otxarkoaga, Altamira, Etxaniz, Suhiltzailea, Deustu, Gazteleku, San Inazio, Santutxu
Kontsumitutako argindarrak sortutako zuzeneko isuriak.	Isuri atmosferikoak (berotegi-efektua, berotze globala).	Argindarraren kontsumoa %0,2 murriztea Zentroak: San Adrian, San Inazio, Abusu
Erabiltzaileen ingurumen-jokabidea		Erabiltzaileen ingurumen-jokabidearekin lotutako gorabehera-kopurua, 4 baino gutxiago zentroetan.

Alderdi horiek esanguratsu izandako zentroak sartzen dira, helburua lortzeko beraietan lan egingo delarik.

*Beren izaerak edota erakundearen baliabide murriztek eraginda Ekintza Planari lotuta ez dauden ingurumen-alderdi esanguratsuen kasuan, Operazio-Kontrolaren bitartez eragiten zaie eta **BiE**ko ingurumen-alderdi guztietarako ezarritako jarraipena egiten zaie.*

4. XEDEAK ETA HELBURUAK. INGURUMENAREN KUDEAKETARAKO PROGRAMAK (EKINTZA PLANAK)

BiEn 25 zentro daude, Bilbo (24) eta Alonsotegi (1) udalerrietan sakabanatuta, eta horiei Eskualdeko Zuzendaritza gaineratu behar zaie. Zentroen artean desberdintasunak eta berezitasunak egon daitezkeen arren, normalean eskualde mailako helburuak, xedeak eta ekintzak proposatzen dira gehienbat; dena den, ingurumen-alderdien identifikazioa eta alderdion ebaluazioa zentroz zentro egiten dira. Jakin badakigu ingurumen-kudeaketa epe erdi/luzerako proiektua dena.

Hobekuntzarako helburuak jartzerakoan, une honetan Eskualde mailan garrantzitsutzat jo ez diren ingurumen-alderdi batzuk aintzat hartu dira, gerora hala izan daitezkeelakoan edota dagoeneko esanguratsuak direlako BiE osatzen duten zentroetakoren batean eta, gainera, iraunkortasunean aurrera egiteko interesgarri jotzen direlako. (Ikusi 6., 7., 8., 11. eta 14. helburuak, Otxarkoaga, Errekalde, Etxaniz Suhiltzailea eta Abusuko zentroei dagozkienak; eta 2.a Eskualdean) Hauetako batzuk zeharkako ingurumen-alderdiak dira: 2., 8. eta 11.a.

Jarraian, Eskualdean ingurumena hobetzeari begira 2012rako planteatutako helburu, xede eta ekintzen ebaluazioaren emaitzak aurkezten dira, eta gehienbat zein zentrori dagokion aipatzen da:

* Adierazleetarako bezeroen hitzordu kopurua + 4. orrialdeko taularen arabera eskualdeko administrazioko lanpostu-zerrenda erabili da.

Gainera, helburuak 3 zentrori baino gehiagori badagozkie, taulan Eskualde mailako emaitza islatzen da, eta, betetze-maila deskribatzen denean, datuak zentroka aurkezten dira.

1. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA		XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA: Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	Balioa		Xedea	Helburua
Hondakin biosanitarioak %1 murriztea Zentroak: Karmelo, Mesedeetakoa, Etxaniz Suhiltzailea, Otxarkoaga, Errekalde, San Adrian, Buruaga, Altamira, Alonsotegi, Arangoiti, Basurtu, Larreagaburu, Santutxu Eskualde mailako azken emaitza: %3,67 murriztu da.	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,0029	Jokabide-ikuskapenak hondakin espezifiko biosanitarioak bereizteari buruz, hauek gehien eragiten diren eremuetan (sendaketa-gelak).	BAI	BAI
			Prestakuntza-hitzaldiak gehien sortzen diren eremuetan, pertsonalari hauek bereizteko modu egokia gogorarazteko.	BAI	
			Edukiontzien txandaketa gutxien eragiten diren eremuetan.	EZ	

Helburuaren betetze-maila: Eskualdean lortzea espero zen adierazlearen balioa: 0,003465. Lortutako adierazlearen balioa: 0,00293; horrek %3,67ko murrizketa dakar berekin.

Zentroako helburua: Oro har, hondakin ebakitzaila eta zorrotzen murrizketa izan da, eragin beharreko zentroak kontuan hartuta, Buruagan izan ezik.

Xede /ekintzen betetze-maila: planifikatutako ekintzak burutu egin dira Eskualdeko zentroetan, hondakinak bereizteko modu egokiari buruzko prestakuntza-hitzaldiak izan ezik. Hala ere, 2 ikastaro egin dira eskualde mailan, hondakinak kudeatzearen ingurukoak.

Ingurumen-eragina murrizteko ekarpena: Helburu honen bidez, gai arriskutsu aktibo gutxiago sartu dira ingurunean.

2. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA		XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA: Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	Balioa		Xedea	Helburua
Erabiltzaileen ingurumen-jokabidearekin zerikusia daukaten gertaera-kopurua murriztea	Gertaera-kopurua (erabiltzaileek eraginak)	30	Ingurumen-jardunbide egokiak erabiltzaileen artean zabaltzea.	BAI	BAI
			Informazio-kartel berriak jartzea uraren eta argindarraren kontsumo arduratsuaz, formatu ezberdinekoak, erabiltzaileen arreta pizteko.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: 2011n, Eskualdean 44 gorabehera erregistratu ziren; eta, 2012an, 30. Beraz, %31,82 murriztu dira. Helburu hau, oro har, zentro gehienetan lortu da, aurreko ekitaldian baino gorabehera gutxiago erregistratu baitira. Erregistratutako gertaerak edonoren eskura dauden edukiontzietan hondakinak behar ez bezala bereizteari lotutakoak dira. Interesa daukaten alderdiei informazioa emateko eta kontzientzia eragiteko lanean jarraitu behar dela deritzogu.

Zentroako helburua: Zentro guztietan bete da, Buruagan (5), Karmelon eta Zurbaranen (4) izan ezik.

Xede /ekintzen betetze-maila: Eskualdea osatzen duten zentro guztietan burutu dira planifikatutako ekintzen %100.

Ingurumen-eragina murrizteko ekarpena: Helburua lortu da, eta horrela lagundu egiten da erabiltzaileak sentsibilizatzen, hondakinak egokiro bereizteko beharraz.

3. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA		XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA: Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	Balioa		Xedea	Helburua
Pilen kontsumoa %1 murriztea Zentroak: Arangoiti, Buruaga, Karmelo, Zorrotza	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,0000045	Zentroko profesional guztiei e-mailez jakinaraztea pila kargagarriak erabili behar direla.	BAI	BAI
			Profesional Berriak hartzeko Protokoloan, Ingurumen Jardunbide Egokiak sartzea.	BAI	
Eskualde mailako azken emaitza: %79,41 murriztu da.			Langileei jakinaraztea zentroetan pila kargagarriak erabiliko direla.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: erdiestea espero zen adierazlearen balioa: 0,00002146 kg pila / erabiltzaileen hitzorduko. Lortutako adierazlearen balioa: 0,0000045 kg pila / erabiltzaileen hitzorduko; horrek kontsumoaren %79,41ko murrizketa ekarri du.

Xede /ekintzen betetze-maila: Xedeak eta ekintzak burutu egin dira.

Ingurumen-eragina murrizteko ekarpena: Baliabide naturalen kontsumoa murriztea lortu da. Eta produktu hauek ekoizteko prozesuetako hondakinak, isuriak eta hondar-uren isurketak murrizten lagundu da.

4. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA		XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA: Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	Balioa		Xedea	Helburua
	Argindarraren kontsumoa %0,2 murriztea Eskualdeko zentroak: San Adrian San Inazio Abusu	Kwh / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,652	Etengailuen ondoan pegatinak jartzea, kontsumo arduratsua gogorarazteko.	BAI
			Ingurumen-jardunbide egokiak langileen artean zabaltzea.	BAI	
	0,2337 0,6059 0,2666		Informazio-buletinetan (Begirada batez) argindarraren kontsumoari buruzko artikulua sartzea.	BAI	
			Pegatinak jartzea, ekipoak, ahal izanez gero, itzali egin behar direla gogorarazteko.	BAI	
Eskualde mailako azken emaitza: %3,84 murriztu da.					

Helburuaren betetze-maila: Eskualdean erdiestea espero zen adierazlearen balioa: 0,6766 kwh/erabiltzaileen hitzorduko. Lortutako adierazlearen balioa: 0,652 kwh/erabiltzaileen hitzorduko; horrek kontsumoaren %3,84ko murrizketa ekarri du.

Zentrokako helburua: Helburu hau zuten zentroak kontuan hartuz gero, murriztu egin da San Adrianen (%14,98) eta San Inazio (%1,62), baina ez Abusun (%3,02ko igoera).

Xede /ekintzen betetze-maila: Informatzen jarraitzen dugu, ingurumen-jardunbide egokien dokumentuaren bidez; zentroetako langileei eta erabiltzaileei banatzen zaie eta, besteak beste, garrantzia ematen zaio kontsumo energetikoa murrizteari. Pegatinak jarri dira, kontsumo arduratsua gogorarazteko. Horrez gain, artikuluak idatzi dira ingurumen-buletinetan. Gainera, eraginkortasun energetikoa aztertu da Altamira, Deustu eta Otxarkoagako zentroetan.

Ingurumen-eragina murrizteko ekarpena: Helburu honen bitartez, baliabide naturalen kontsumoa eta atmosferarako isuriak murriztea lortu da.

5. INGURUMEN-HELBURUA	ADIERAZLEA		XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA: Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	Balioa		Xedea	Helburua
Hondakinen bereizketa hobetzea ("zabor orokor" gisa bildutako hondakinen kantitatea %1 murriztea) Zentroak: Larreagaburu, Otxarkoaga, Altamira, Etxaniz Suhiltzailea, Deustu, Gazteleku, San Inazio, Santutxu	Kg hondakin/hitzordukoak (erabiltzaileak)	0,0198	Langileei informazioa ematea zentroetan diren bereizten hondakinez.	BAI	BAI
			Hondakinak kudeatzearen inguruko triptikoa zentroko langile berriei ematea.	BAI	
			Zentroko bileretako gaitzerrendan ingurumen-kudeaketa sartzea (xedea, 3 bilera).	BAI	
			Aldizkako ikuskapenak, hondakinak nola bereizten diren egiaztatze (xedea, 3 ikuskapen).	BAI	
Eskualde mailako azken emaitza: %5,20 murriztu da.					

Helburuaren betetze-maila: Eskualdean lortzea espero zen adierazlearen balioa: 0,02069 kg hondakin / erabiltzaileen hitzorduko. . Lortutako adierazlearen balioa: 0,0198 kg hondakin / erabiltzaileen hitzorduko; horrek kontsumoaren %5,20ko murrizketa ekarri du.

Zentrokako helburua: Planifikatutako zentro guztietan murriztu da, Deustun izan ezik (%23,19 igo da).

Xede /ekintzen betetze-maila: Oro har, ekintzak gauzatu egin dira; edukiontzia jarri dira zentroetan plastikoak eta RAEEak bereizteko; eta langileei informazioa ematen jarraitzen da, hondakinak era egokian kudeatzearen gainean, langile berriei triptikoa emanez. 2 prestakuntza-jardunaldi egin dira hondakinak kudeatzeari buruz.

Ingurumen-eragina murrizteko ekarpena: Murriztu egin dira hondakin ez-arriskutsuak. Kontsumoa murriztu da, baita lurzorua eta atmosferaren gaineko eragina ere, tratamendu eta metaketa ekintzei esker.

6. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA		XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA: Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	Balioa		Xedea	Helburua
Folioen kontsumoa %0,5 murriztea. Zentroak: Zurbaran, Mesedeetakoa	Kg folio/ hitzorduak (erabiltzaileak)	0.0080 0,0067	Folioen hiruhilekako kontsumoa aztertzea.	BAI	EZ EZ
			Inprimatutako folioak barne-kontsumoko oharretarako erabiltzea.	BAI	
			Zentroko langileei aurrezteko planaren berri ematea, informazio-kartelen bidez.	EZ	
			Faxean eta fotokopiagailuan kartela jartzea, papera era arduratsuan kontsumitu behar dela gogorarazteko.	BAI	
			Zentroko langileei informazioa ematea paper-kontsumoaren gaineko Jardunbide Egokiei buruz.	BAI	
Eskualde mailako azken emaitza: %42,32 igo da.					

Helburuaren betetze-maila: Erdiestea espero zen adierazlearen balioa: 0,00575 kg/ hitzorduak (erabiltzailea). Lortutako adierazlearen balioa: 0,0082 kg/ hitzorduak (erabiltzailea); horrek %42,32ko igoera ekarri du eskualde mailan.

Zentroko helburua: Mesedeetakoan, %6,84 igo da (kontuan hartu behar da Mesedeetako Lehen Mailako Arretako Unitateko Saralegi osasun-zentro berriaren hornidura, 2012ko irailean zabaldu baitzen); Zurbaranen ere, igo egin da folioen kontsumoa (%33,87). 2013an, jarraipena egingo zaio folioen kontsumoari, oro har.

Xede /ekintzen betetze-maila: Planifikatutako ekintzak helburu hori zuten zentroetan egin dira, aurrezteko planari buruzko informazio-kartelak izan ezik.

Ingurumen-eragina murrizteko ekarpena: Ez da posible izan.

7. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA		XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA: Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	Balioa		Xedea	Helburua
Erabiltzaileek etxeko hondakin zorrotzekin izandako gorabehera-kopurua, 4 baino gutxiago. Eskualdea Zentroak: Errekalde Alde Zaharra Zurbaran	Gorabehera-kopurua (erabiltzaileek eraginak)	2 0 0 1	Lan-taldeak sortzea, erabiltzaileen etxeetatik datozen hondakinei lotutako egoera aztertzeke.	BAI	BAI BAI BAI
			Jarraibideak prestatzea, etxeko hondakin zorrotzak zentroetan entregatu eta jasotzeari buruz.	BAI	
			Zentroko profesional guztiei posta elektronikoz eta Osabide bitartez jakinaraztea.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen adierazlearen balioa: < 4. Lortutako adierazlearen balioa, 2. Bi gorabehera izan dira (bat Zurbaranen eta beste bat Santutxun), erabilitako orratzak edukiontzi ezegokietan utzi baitira, zentro horietako Puntu Berdeetan.

Xede /ekintzen betetze-maila: Xede eta ekintza guztiak burutu dira. "Zure orratzak edukiontzian jarri" programa abiarazi da, erabiltzaileei edukiontziak entregatzeko eta jasotzeko, batez ere injektagarriak erabiltzen diren tratamenduetan (intsulina, heparina eta abar); programa hori era pilotuan gauzatzen ari da Errekalde, Alde Zahar eta Zurbarango zentroetan. 2012an bilera batzuk egin ziren zentro horietako erizaintzako pertsonalarekin, beste edukiontzi homologatu bat eskatu da etxeko objektu horietarako, eta 3 hilabetez probatzen ari da. Eragozpenik ez badago, gainerako zentroetara hedatuko da.

Ingurumen-eragina murrizteko ekarpena: Helburu honen bidez, gai arriskutsu aktibo gutxiago sartu dira ingurunean.

8. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA		XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA: Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	Balioa		Xedea	Helburua
RAEEko hondakinak (aparatu elektronikoak) %2 murriztea Eskualdea Zentroa: Alde Zaharra Abusu Indautxu	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,000093 0,0004 0,0001 0,00002	Langileei informazioa ematea zentroetan bereizten diren hondakinez.	BAI	EZ BAI BAI
			Zentroan jasotako aparatu elektronikoak aztertzea (erabiltzaileei dagozkien aparatuak zenbatzea).	BAI	
			Zentroko bileretako gai-zerrendan ingurumen-kudeaketa sartzea (xedea, 3 bilera).	BAI	
Eskualde mailako azken emaitza: %59,95 murriztu da.					

Helburuaren betetze-maila: Erdiestea espero zen adierazlearen balioa: 0,000225 kg/ hitzordua (erabiltzailea). Lortutako balioa: 0,000093 kg/ hitzordua (erabiltzailea). . Eskualde mailan, %59,95 murriztu da. Hondakin hauek lotuta daude, batez ere, gure zentroetako erabiltzaileen odoleko glukosa determinatzeko ekipoetan izandako alaketekin. Zentrokako helburua: Alde Zaharrean aparatu elektroniko gehiago jaso dira (%119,81); hala ere, Abusun (%95,54) eta Indautxun (%67,61) murriztu egin dira.

Xede /ekintzen betetze-maila: Proposatutako Xede / Ekintzak burutu egin dira.

Ingurumen-eragina murrizteko ekarpena: Helburu honen bidez, gai arriskutsu aktibo gutxiago sartu dira ingurunean.

9. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA		XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA: Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	Balioa		Xedea	Helburua
Lanpara-hondakinak %2 murriztea Zentroak: Begoña, Txurdinaga, Gazteleku, Indautxu	Kg / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,000123	Argiak errebisatzea eta lanparak kontsumo eraginkorreko beste batzuekin ordezkatzea.	BAI	EZ
Eskualde mailako azken emaitza: %44,82 igo da.			Zentroko argi-beharrak aztertzea.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Erdiestea espero zen adierazlearen balioa: 0,0000833 kg/ hitzordua (erabiltzailea). Lortutako balioa: 0,000123 kg/ hitzordua (erabiltzailea); eskualde mailan %44,82 igo da. Jasotako lanparen artean, batetik, zentroetako kontsumoari dagozkionak ditugu, eta, bestetik, langileek beren etxeetatik ekarritakoak, hondakin hauek behar bezala bereizteaz kontzientzia hartu dute eta. Zentrokako helburua: Helburu hau zuten zentroei dagokienez, Buruaga, Txurdinaga eta Gaztelekun murriztu egin da; eta Indautxun gehitu (tartean, zentroan erabili ez diren lanparak daude).

Xede /ekintzen betetze-maila: Proposatutako Xede / Ekintzak burutu egin dira.

Ingurumen-eragina murrizteko ekarpena: Ez da posible izan.

10. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA		XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA: Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	Balioa		Xedea	Helburua
Profesional guztien inplikazioa areagotzea ingurumen-kudeaketari dagokionez. Ekipoen %<25 piztuta. Zentroa: Errekalde	Piztutako ekipo-kopurua lanorduz kanpo.	10/57	Estamentukako bilerak zentroan, kontsumo arduratsuaren garrantzia gogoraraziz.	BAI	BAI
			Planilla egitea piztuta geratzen diren ekipo elektronikoak eta kontsultetako argiak ausaz erregistratzeko.	BAI	
			Sistema elektronikoak eta argiak itzali direla ausaz egiaztatzea.	BAI	
			Berariaz prestatutako oroigarria uztea, ekipoak eta argiak itzaltzen ez diren kontsultetan.	BAI	
Zentro mailako azken emaitza: %17,54 piztuta.					

Helburuaren betetze-maila: Lortzea espero zen emaitza: 14/57 ekipo. Urteko lehen lauhilekoan, 57 ekipo informatikotatik (ordenagailua, inprimagailua) 19 antzeman dira piztuta; bigarren lauhilekoan, 57tatik 24; eta, urtea amaitu ostean, balantzea 10/57 da. Beraz, nabaria da igo egin dela langileen inplikazioa eta kontzientzia handiagoa dutela kontsumo arduratsuaren arloan.

Xede /ekintzen betetze-maila: Proposatutako Xede / Ekintzak burutu egin dira.

Ingurumen-eragina murrizteko ekarpena: Helburu honen bitartez, baliabide naturalen kontsumoa eta atmosferarako isuriak murriztea lortu da.

11. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA		XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA: Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	Balioa		Xedea	Helburua
Gas-kontsumoa %0,2 murriztea Zentroak: Sagarminaga	Kwh / hitzorduak (erabiltzaileak)	0,53	Ingurumen-jardunbide egokiak langileen artean zabaltzea.	BAI	EZ
			Zentroko bileretako gai-zerrendan ingurumen-kudeaketa sartzea (xedeak, 3 bilera).	EZ	
Zentro mailako azken emaitza: %27,57 igo da.			Zentroko profesional guztiei e-mailez gogoraraztea berogailuak itxi behar dituztela, behar ez direnean.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Erdiestea espero zen adierazlearen balioa: 0,419 kwh/ hitzordua (erabiltzailea).
Lortutako balioa: 0,53 kwh/ hitzordua (erabiltzailea). Beraz, %27,57 igo da.

Xede /ekintzen betetze-maila: Proposatutako xedeak / ekintzak burutu egin dira, ingurumen-kudeaketa zentroko bileretako gai-zerrendan sartzea izan ezik.

Ingurumen-eragina murrizteko ekarpena: Ez da posible izan.

12. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA		XEDEAK /EKINTZAK	EGOERA: Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	Balioa		Xedea	Helburua
Profesional guztien inplikazioa areagotzea ingurumen-kudeaketari dagokionez. Zuzendaritza	3 email	2	Langileei emailak bidaltzea, ingurumen-jardunbide egokiak gogoraraziz.	BAI	BAI
	Ikuskapena / Lauhileka	4	Sistema elektronikoak eta argiak itzali direla ausaz egiaztatzea.	BAI	
			Berariaz prestatutako oroigarria uztea, ekipoak eta argiak itzaltzen ez diren lanpostuetan.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: Hondakinak hobeto bereizten dira, eta, horregatik, Kg gutxiago sortu dira hondakin hauei dagokienez: Zaborra, plastikoa, medikamentuak, RAEEak; bestetik, pila eta toner gutxiago kontsumitu da. Beraz, langileen inplikazioa handiagoa dela uste dugu.

Xede /ekintzen betetze-maila: Urtean zehar, 2 komunikazio bidali zaizkie lankideei, emailaz, ingurumen-helburu eta bulegoko jardunbide egokiei buruz; eta gogorarazi zaie ordenagailuak eta argiak itzali egin behar direla. Ikusizko 4 ikuskapen egin dira, ekipo informatikoak eta argiak itzali diren egiaztatzeko.

Ingurumen-eragina murrizteko ekarpena: Helburu honen bidez, baliabide naturalen kontsumoa eta atmosferarako isuriak murriztu dira, baita hondakin ez-arriskutsuen sorrera ere, eta, ondorioz, jaitsi egin da hondakin horien kudeaketak sortutako ingurumen-eragina.

13. INGURUMEN- HELBURUA	ADIERAZLEA		XEDEAK / EKINTZAK	EGOERA: Lortua BAI/EZ	
	Definizioa	Balioa		Xed ea	Helburu a
A-Z karpeten kontsumoa %1 murriztea. Zentroa: Zuzendaritza	Erositako unitate-kopurua	18	Ingurumen-jardunbide egokiak langileen artean zabaltzea.	BAI	BAI
Zentro mailako azken emaitza: %25 murriztu da.			Birziklatutako karpeten erabilera bultzatzea. Zentroko profesional guztiei e-mailez gogoraraztea birziklatutako karpetak erabili behar direla.	BAI	

Helburuaren betetze-maila: 2011n 24 A-Z karpeta erosi ziren (5060564 eta 5060563 kodeak); eta, 2012an, 18 karpeta erosi dira. Beraz, %25 murriztu dira.

Xede /ekintzen betetze-maila: Proposatutako Xede / Ekintzak burutu egin dira. Erabilitako karpetak erabiltzea bultzatzen ari da.

Ingurumen-eragina murrizteko ekarpena: Paper-kartoizko karpeten kontsumoa murriztea lagungarria da baso-baliabide eta baliabide hidrikoei eusteko.

5. INGURUMEN-JOKABIDEA

Aurreko adierazpenen aldean, egokitzen joan da, ahal den guztietan, Bilbo Eskualdeko balio globalak aurkeztea, horrek informazio zabalagoa ematen dielako alderdi interesatuei. Zentroko datuak dokumentuaren azkenean daude erantsita.

5.1 . OINARRIZKO ADIERAZLEAK ETA INGURUMENEO BESTE ADIERAZLE BATZUK

LMUetan ingurumenaren aldetik daukaten jokabidearen jarraipena egiteko, **BiE**ren ingurumen-alderdi nagusiekin lotutako zenbait jarraipen-adierazle ezarri dira. Jarraipen-adierazleok erakundearen tamainari, motari, beharrei, lehentasunei... egokitutako informazioa lortzea ahalbidetzen dute. Era berean, hau ere lortzen da adierazle hauen bidez: ahalik eta baloraziorik zehatzena izatea erakundearen ingurumen-jokabideari buruz; ulergarriak eta argiak izatea; urtekako alderaketa ahalbidetzea, erakundearen ingurumen-jokabidearen eboluzioa ebaluatzeko; araututako betebeharrekoekin alderaketa egokia egin ahal izatea.

*Ezarritako adierazleek erlazioan jartzen dituzte urteko guztizko eragin eta/edo kontsumoak gure zentroetan atenditutako erabiltzaileen zita-kopuruarekin eta eskualdeko zuzendaritzako pertsonaleko plantillako kopuruarekin, uste baitugu horrela hobeto islatzen dela **BiE** – Bilbo Eskualdeko ingurumen-jokabidea. Masa kontsumoak eta sortutako hondakinak kg-tan adierazi dira, zentroetan islatutako datuekiko konparazioa errazteko, zenbait kasutan, tonetan adieraziak izatea eragozten duten kantitate oso txikiei egiten baitie erreferentzia. Azken horiek, era berean, dagokion adierazlea lortzeko asmoz, hitzordu kopuruarekin lotzen dira.*

Jarraian, 2010, 2011 eta 2012. urteei dagozkien adierazle hauetako batzuen eskualde mailako datu kuantitatiboak ematen dira, esanguratsuak izan zein ez izan. 7. puntuan, (zentrokako datuak -eranskina), BiE osatzen duten zentro bakoitzeko datuak ematen dira.

*Adierazleetarako erabiltzen den zentroetako erabiltzaileen hitzordu-kopurua **BiE**ko Kudeaketa Sanitarioko Unitateak eman du.

Oinarrizko adierazleen %etan – zeinua agertuz gero, horrek esan nahi du jokabidea hobetu egin dela, eta, alderantziz, zeinurik ez badago, adierazi nahi da gure jokabidea hobetu behar dugula ingurumen-alderdi horri dagokionez, erabiltzaileen hitzorduei lotutako datuetan izan ezik.


Oinarrizko adierazlea. Ingurumen-jokabidea: Ura

Urteko ur-kontsumo osoa (m3)

- Ur-kontsumoa: (EZ ESANGURATSUA)**

	2010	2011	2012	Aldea 2011-2012
Ur-kontsumoa (m3)	17.872	15.974,8	16.760,38	4,92
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	3.938.744	4.154.568	4.142.187	-0,30
Ur kontsumoa / erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	0,00454	0,00384	0,00404	5,23


Datuak Uren Partzuergoak emandako fakturretatik atera dira.



Oinarrizko adierazlea. Ingurumen-jokabidea: Eraginkortasun energetikoa

	2010	2011	2012	Aldea 2011-2012
Argindar-kontsumoa (Mwh)	2.907,662	2.817,362	2.701,003	- 4,13
Berogailuetako gas-kontsumoa (Mwh)	2.819,874	2.305,590	3.023,608	31,14
Berogailuetako gasolio-kontsumoa (Mwh)	360,26787	153,26014	319,07496	108,19
Energia-kontsumo zuzena guztira (Mwh)	6.087,804	5.276,212	6.043.686	14,55
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	3.938.744	4.154.568	4.142.187	-0,30
Energia-kontsumo zuzena guztira (Mwh) / erabiltzaileen hitzorduak + admin. plantilla *1000	1,5456	1,2699	1,4590	14,89

1. Energiaren kontsumo zuzena guztira. (Mwh)



Argindar-kontsumoa (ESANGURATSUA*)

BiEko zentroetako eta bere eskualdeko zuzendaritzako bulegoetako argindarraren guztirako kontsumoa 2011n 2.817,362 Mwh izan zen, eta 2012an, berriz, 2.701,003 Mwh-koa; Mwh/erabiltzaileen hitzordu kopurua + administrazioko plantilla adierazlea kontuan izanik, eskualde mailan %3,84 murriztu da. Pertsonalaren kontzientziazioa handitu egin da ingurumen-jardunbide egokien arloan. Lanparak, erre ahala, kontsumo txikikoekin ordeztu dira. Eskualdeko 3 zentrotan, energia-eraginkortasunari buruzko azterketa egin da (Deustu, Altamira eta Otxarkoaga).

*Adierazle esanguratsua Abusun, San Adrianen, San Inazion eta Santutxun.

Zentroei dagozkien datuak zentro bakoitzeko tauletan ikus daitezke.

Datuak hornitzaileak emandako fakturretatik atera dira.

- **Galdaretako gas-kontsumoa (ESANGURATSUA*)**

2011n, galdaretako gas-kontsumoa 2.305,590 Mwh izan zen; 2012an, 3.023,608 Mwh. Beraz, 2012an %31,53 igo da, Mwh/erabiltzaileen hitzordu-kopurua+administrazioko plantilla adierazlea kontuan hartuta. Kontsumoa negu batetik bestera ematen den klimatologia aldearen arabera da.

*Adierazle esanguratsua Arangoitin eta Sagarminagan. (Zentro hauei dagozkien datuak zentro bakoitzeko tauletan ikus daitezke).

Datuak hornitzaileak emandako fakturretatik atera dira.

- **Galdaretako gasolio-kontsumoa (EZ ESANGURATSUA)**

2011n, galdaretako gasolio-kontsumoa 153,260 Mwh izan zen; 2012an, 319,074 Mwh. Beraz, 2012an %108,81 igo da, Mwh/erabiltzaileen hitzordu-kopurua+administrazioko plantilla adierazlea kontuan hartuta.

Aurreko kasuan bezala, kontsumoa negu batetik bestera ematen den klimatologia aldearen eta birkarga-egunaren arabera da.

Datuak hornitzaileak emandako fakturretatik atera dira.

- **Automozioiko gasolio-kontsumoa (EZ ESANGURATSUA)**

Asistentziarako erabiltzen diren automobilak eskualdeko zuzendaritzari esleituta daude (renting ibilgailuak).

2011n, automozioiko gasolio-kontsumoa 6,342,44 litro izan zen; 2012an, 8.243,8 litro. Beraz, kontsumoa %29,98 igo da. Ibilgailu hibridoak edo elektrikoak erabiltzea baloratzen ari da.

Datuak hornitzaileak emandako fakturretatik atera dira.

Oinarrizko adierazlea. Ingurumen-jokabidea: Eraginkortasun energetikoa

2. Energia berriztagarriaren kontsumoa guztira:

Bilbo Eskualdeak ez dauka energia berriztagarrien ituririk.


Oinarrizko adierazlea. Ingurumen-jokabidea: Eraginkortasuna materialen kontsumoan

Erabilitako material desberdinen urteko masa gastua.

	2010	2011	2012	Aldea 2011-2012
Material kontsumoa jarduera sanitarioan (Tn)	223,131	237,273	182,245	-23,19
Folio-kontsumoa (Tn)	23,669	24,043	34,115	41,89
Inprimagailu/fotokopiagailuetako toner/drum-kontsumoa (Tn)	1,331	1,241	1,422	14,50
Pila- eta bateria-kontsumoa (Tn)	0,274	0,090	0,0185	-79,47
Erabilitako materialen urteko masa gastua. (Tn)	248,422	262,662	217,815	-17,07
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	3.938.744	4.154.568	4.142.187	-0,30
Erabilitako materialen urteko masa gastua / erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla * 1000	0,06307	0,0632	0,0525	-16,83

*Jarduera sanitarioari lotutako kontsumoaren atalean honakoak biltzen dira: medikamentuak, aposituak, tirak, orratzak, xiringak, tutuak, bendak, gazak, eta momenturen batean kontsumo handiko artikulutzat jotako beste material batzuk.

Material administratibo eta sanitarioen gaineko kontsumo-datuak zentroek Hornikuntzari egindako eskaera-orrietatik datoz.



Materialen kontsumoak lotura zuzena du erabiltzaileen osasun-beharrekin; beraz, nahiz eta kontsumo horren kontrol zorrotza egin, erakundeak zail du hori murriztea, beti lehenetsi behar baitu jarduera sanitarioa behar bezala garatzea. Hala ere, merkatu-ikerketak egiten dira, baita bestelako aukerak baloratu ere. Adibide bat da osasun-zentroetan erabiltzaileei ematen zaizkien oihala xurgatzaileen eboluzioaren azterketa. 2009an hasi zen egiten 4 zentroetan (Karmelo, Abusu, Sagarminaga eta Txurdinaga) eta, horretan oinarrituta, botatzekoak diren oihala xurgatzaileen ordeza, berriz erabil daitezkeen oihala xurgatzaileak ematen ari dira (50-80 garbiketa jasan ditzakete); horrela, 2009tik 2012ra, asko murriztu da emandako unitate-kopurua.

- **Folio-kontsumoa (EZ ESANGURATSUA)**

Paper-kontsumoa funtsezkoa da gure eguneroko jardueran. Nabarmen igo da kontsumo hori, eta uste dugu lotura izan dezakeela 2012ko EPEarekin eta zentroetan 2012an izandako ekipo informatikoen aldaketekin. 2013an, jardunbide egokiak eta kontsumo arduratsua gogorarazteaz gain, jarraipena egingo zaio paper-kontsumoari.

- **Pila- eta bateria-kontsumoa (ESANGURATSUA*)**


Azterketa bat egin da bateria-kargagailuak erabiltzeko bideragarritasunari buruz, eta zentro guztietan jarri dira. Ez da posible izan zentro guztietan pila normalak kargagarriekin ordezkatzeta, profesional batzuen mesfidantzagatik, eta langileak seguru sentitzen ez direlako prozedura diagnostikoetan erabiltzen diren pilen kargen fidagarritasunaz; hala ere, Eskualdeko 2012ko azken balantzean agertzen da pila- eta bateria-kontsumoa %79,47 murriztu dela. Zentroetako arduradunei ordezkapen horrek dakartzan onurak adierazi zaizkie e-mail bidez; gainontzeko langileei ere jakinarazi zaie ingurumenari buruzko galdetegiaren bitartez. Honi ekiten jarraituko dugu.

**Adierazle esanguratsua Arangoiti, Buruaga, Karmelo eta Zorrotzan.*

BiEko Hornidura Departamentuak emandako datuak


HONDAKINAK**Oinarrizko adierazlea. Ingurumen-jokabidea: Hondakinak****1. Urtean guztira sortutako hondakinak**

	2010	2011	2012	Aldea 2011-2012
Hondakin arriskutsuak (Tn)	21,911	24,803	21,405	-13,70
Bereizitako hiri-hondakinak (Tn)	55,605	46,993	45,551	-3,07
Bereizi gabeko hiri-hondakinak (Tn)	83,429	86,891	82,126	-5,48
Urtean guztira sortutako hondakinak (Tn)	160,946	158,687	149,083	-6,05
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioako plantilla	3.938.744	4.154.568	4.142.187	-0,30
Urtean guztira sortutako hondakinak/ erabiltzaileen hitzorduak + administrazioako plantilla * 1000	0,04087	0,0382	0,0360	-5,77



Guztira, %6,05 hondakin gutxiago sortu dira, eta kontuan hartuta erabiltzaileak eta, beraz, jarduera, areagotu egin direla, Tn hondakin guztira / erabiltzaileen hitzorduak + administrazioako plantilla adierazlearen azken balantzeak %5,77ko murrizketa erakusten du.

Hondakin orokorreki dagokienez, egoera normaletan sortutakoak hartu dira kontuan, eta ez eraikuntza-hondakinak (Deustu, Errekalde, Etxaniz Suhiltzailea, Buruaga eta Eskualdeko Zuzendaritzako obren ondoriozko hondakinak, hain zuzen); obra-hondakin horiek (19.938 kg) egoera ezohikoetan sortzen dira, eta, horiek kontuan hartuta, ezin izango lirateke modu egokian alderatu normalean sorrarazten diren hondakinak (hondakin arriskutsuak, bereizitako hondakin ez-arriskutsuak eta bereizi gabeko hondakin ez-arriskutsuak).




2. Urtean guztira sortutako hondakin arriskutsuak

	2010	2011	2012	Aldea 2011-2012
Urtean guztira sortutako hondakin arriskutsuak (Tn)	21,911	24,803	21,405	-13,70
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	3.938.744	4.154.568	4.142.187	-0,30
Urtean guztira sortutako hondakin arriskutsuak/ erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla * 1000	0,00556	0,00597	0,00516	-13,44

Hondakin arriskutsuetako batzuk erabiltzaileen behar sanitarioen arabera sortzen dira; adibidez hondakin zorrotzak / puntadunak eta zitostatikoak. Erakundearen iritziz, zaila da hauen gainean jardutea, beti lehenesten baita jarduera sanitarioa era egokian garatzea, nahiz eta hondakin horien kontrol zorrotza egiten den.

Bestalde, zentroetan **Puntu Berdeak** mantentzen dira. Erabiltzaileek erradiografiak, pilak eta iraungitako botikak utz ditzakete bertan. Hondakin horien kantitateak behera egin du; dena dela, hondakin horiek gehitzea ez litzateke hartuko zentroaren ingurumen-jokabide okerragotzat. Alderantziz, erakunde honetako Zuzendaritzak uste du erabiltzaileen hondakin horien bilketa areagotzeak behar bezalako kudeaketa bermatzen duela. Hondakinok baimendutako kudeatzailearen bitartez kudeatzen dira.

Hona hemen sortutako hondakin arriskutsuen grafikoa:



Datuok hondakinak kudeatzen dituzten agenteek eman dituzte.

• **Zorrotzak eta puntadunak, zitostatikoak eta baztertutako medikamentuak (ESANGURATSUA*)**

	2010	2011	2012	Aldea 2011-2012
Zorrotzak eta puntadunak (Tn)	11,902	12,677	12,175	-3,96
Zitostatikoak (Tn)	1,735	1,753	1,541	-12,10
Baztertutako medikamentuak (Tn)	5,619	7,568	5,320	-29,70
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	3.938.744	4.154.568	4.142.187	-0,30

*Hondakin zorrotz eta puntadunen kopurua esanguratsua izan da zentro hauetan: Alonsotegi, Altamira, Arangoiti, Basurtu, Etxaniz Suhiltzailea, Buruaga, Karmelo, Mesedeetakoa, Larreagaburu, Otxarkoaga, Errekalde, San Adrian eta Santutxu.

Hondakin zitostatikoak eta baztertutako medikamentuak ez dira esanguratsuak izan Eskualdeko inongo zentroan.

Hauek guztiak baimendutako kudeatzaileek kudeatzen dituzte.

• **RAEEak (Inprimagailuak, ordenagailuak... aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinak, oro har) (ESANGURATSUA)**

	2010	2011	2012	Aldea 2011-2012
RAEE (kg)	467,93	969,8	387,28	- 60,07
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	3.938.744	4.154.568	4.142.187	-0,30
RAEEak / erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla *1000	0,00012	0,000233	0,0000934	-59,95

2011an, 969,8 kg RAEE zenbatu ziren eta 2012an, aldiz, 387,28 kg; gehienak, erabiltzaileen aparatu zaharkituei dagozkie, eta guztiak baimendutako kudeatzaile batek kudeatu ditu. Kg RAEE / erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla adierazlea kontuan hartuta, %59,95 murriztu dira hondakin hauek.

- **Lanpara fluoreszenteak (ESANGURATSUA*)**

	2010	2011	2012	Aldea 2011-2012%
Lanpara-hondakinak (kg)	455,824	353,69	511,21	44,54
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	3.938.744	4.154.568	4.142.187	-0,30
Lanpara-hondakinak / erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla *1000	0,00012	0,00008	0,00012	44,97

Zentroetatik kendu diren fluoreszente-kopurua zerbitzu teknikoek egindako azterketen baitan dago, hortaz, beti ezin da kontrol zuzenik egin. Kendutako lanparak hornitzaileak berak kudeatzen ditu. Alderdi hau esanguratsua izan da zentro hauek: Altamira, Begoña, Gazteleku, Indautxu, Buruaga, San Adrian, San Inazio eta Txurdinaga.

Zerbitzu hornitzaileak berak emandako datuak.

- **Garbiketako ontzi arriskutsuak**

	2010	2011	2012	Aldea 2011-2012%
Garbiketako ontzi arriskutsuak (kg)	19,665	1	2,45	145
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	3.938.744	4.154.568	4.142.187	-0,30
Garbiketako ontzi arriskutsuak/ erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla *1000	0,0050	0,00024	0,00000059	-99,75

Kontrata batek sortutako alderdia denez gero, horrekiko kontrola mugatua da. Dena dela, zeregin horretarako kontratatutako enpresak ziurtatutako Sistema dauka Ingurumena Kudeatzeko; beraz, bere ingurumen-kudeaketaren etengabeko hobekuntza prozesuan dago sartuta.

Kontratatutako enpresak emandako datuen arabera, ia ontzi arriskutsu guztiak baztertu dira; izan ere, bakarrik erabiltzen dira klorodun produkturen batekin, ontzi horiekin irakuzketa hirukoitzaren teknika egiten baita

• **Hondakin ez arriskutsuak**

	2010	2011	2012	Aldea 2011-2012%
Hondakin ez arriskutsuak (Tn)	139,034	133,884	127,677	-4,64
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	3.938.744	4.154.568	4.142.187	-0,30
Hondakin ez arriskutsuak/ erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla *1000	0,0353	0,0322	0,0308	-4,35

Eskualdeko zentroetan sortutako hondakin ez arriskutsuen artean, batetik, hiri-hondakin bereiziak sartzen dira (tinta eta toner kartutxoak, papera, kartoia, erradiografiak, plastikozko eta metalezko ontziak, hondakin higienikoak); eta, bestetik, hiri-hondakin bereizi gabeak edo zarama orokorra deritzenak.


Sortutako hondakin ez arriskutsuen kantitatea 2011n 133,884 Tn izatetik 2012an 127,677 Tn izatera pasatu da; horrek %4,35ko murrizketa dakar, adierazle hau kontuan izanda: bereizi gabeko hiri-hondakin Tn + bereizitako hiri-hondakin Tn / erabiltzaileen hitzorduak+administrazioko plantilla.

• **Bereizi gabeko hiri-hondakinak (ESANGURATSUA*)**

*2011ko ingurumen-ebaluazioan, zentro hauetan izan zen esanguratsua hiri-hondakin ez bereizien kopurua: , Altamira, Etxaniz Suhiltzailea, Deustu, Gazteleku, Larreagaburu, Otxarkoaga, San Inazio eta Santutxu. Zentro hauetan izan den jokatibidearen eboluzioa zentroakoko tauletan ikus daiteke.

Hondakinak: 1. Urtean Guztira Sortutako Hondakinak puntuan adierazi denez, bakarrik hartu dira kontuan ohiko egoeretan sortutakoak, eta ez eraikuntza-hondakinak (zentroetako obretan sortutakoak).


Hondakin ez arriskutsuei buruzko datuak garbiketarako kontrataturiko enpresaren lankidetzarekin bildu dira. Datuak ondoko grafikoan adierazten dira, %tan:



ISURIAK (Esanguratsuak, elektrizitate-kontsumoaren ondoriozkoak)**Oinarrizko adierazlea. Ingurumen-jokabidea: Isuriak****1. Berotegi-efektuko gasen urteko isuria guztira**


	2010	2011	2012	Aldea 2011-2012%%
Energia elektrikoaren isuria (Tn CO ₂)	1.334,617	760,68	729,27	-4,13
Galdaretako gas-isuria (Tn CO ₂)	567,218	497,104	622,804	25,29
Galdaretako gasolio-isuria (Tn CO ₂)	108,83	52,73	210,56	299,30
Berotegi-efektuko urteko gas-isuria guztira (Tn CO ₂)	2.030,385	1.327,016	1.583,895	19,36
Erabiltzaileen hitzorduak + administrazioko plantilla	3.938.744	4.154.568	4.142.187	-0,30
Berotegi-efektuko urteko gas- isuria guztira / erabiltzaileen hitzorduak * 1000	0,00052	0,00031	0,00038	19,71

*2011tik aldatu egin dira aplikatutako koefizienteak (CO₂ren isurtze-faktorea eta erregaien gutxieneko berotze-ahalmena, GEI 1990-2010 (2012) inbentarioaren arabera).



BiEko jardueretan atmosferara egindako balizko isuriak, galdaren eremuan gas/gasolioa erretzearen ondoriozko konbustio-gasek eragindakoak izan daitezke; edo, kontsumitutako elektrizitatea sortzearen ondoriozkoak.

2012an, %19,36 areagotu dira CO₂ isuri atmosferikoak.



2. Urteko aire-isuriak guztira:

Erakundeak ez du adierazlea kalkulatzeko daturik.

Airera egindako isuriak zentroetako isurtze-guneetako neurketen bidez zehazten dira. Datu hauek galdaren mantentze-lanen hornitzaileak eman dizkigu.

Isurtze-gune guztiek legeak ezarritako mugak betetzen dituzte.

Eranskinean datoz zentroetako galdaretako isuriei buruzko datuak.

ZENTROA	CO2 (%)	CO (p.p.m)	NOX (p.p.m)
DEUSTU	9,42	2,13	14,25
GAZTELEKU	6,84	45,29	18,42
ABUSU	4,06	20,83	10,00
ERREKALDE	1,77	12,29	10,77
SAN ADRIAN	4,48	12,00	11,50
SAN INAZIO	8,08	0,50	13,42
ALTAMIRA	3,97	19,33	10,67
BASURTU	4,92	39,83	12,50
BOLUETA SAGARMINAGA	4,63	27,67	10,33
MESEDEETAKOA	6,07	3,00	11,67
LARREAGABURU	8,90	36,67	16,33
OTXARKOAGA	10,71	23,00	11,25
TXURDINAGA	5,63	10,00	13,00
INDAUTXU	3,14	7,01	11,76
ARANGOITI	4,62	23,50	10,50
ALDE ZAHARRA	6,55	55,66	16,32
SANTUTXU	5,21	2,69	42,88
SARALEGI	7,46	16,00	16,00

BIODIBERTSITATEA

Oinarrizko adierazlea. Ingurumen-jokabidea: Biodibertsitatea

Lurzoruaren okupazioa:

Bilboko Eskualdeko lur-okupazioari Saralegiko Osasun-Zentroko 291 metro karratuak gehitu zaizkio 2012an.

	2010	2011	2012	Aldea 2011-2012
Lurzorua okupazioa (m2)	28.877	28.877	29.168	1,008
Plantilla	886	886	930	4,97
Lurzorua okupazioa / Plantilla	32,59	32,59	31,36	-3,96

Beste adierazle batzuk:

ZARATA

- **Eragindako zarata (EZ ESANGURATSUA)**

BiE garatzen diren jarduerak ez ziren zarata-eragileztat jotzen; hala ere, 2010ean kanpo-zarata neurtu zen, eta gehieneko balioak Udal Ordenantzak ezartzen duenaren azpitik zeuden. (60 dBA). (Osakidetza Erakunde Zentraleko Prebentzio Zerbitzuko sonometro kalibratua).

INGURUMEN-JOKABIDEA:

- **Erabiltzaileen ingurumen-jokabidea (ESANGURATSUA*)**

*Erabiltzaileen ingurumen-jokabidea esanguratsua izan da Buruagan (10), Etxaniz Suhiltzailean (4), Deustun (9) eta Errekalden (4). Parentesi artean, osasun-zentro horietan izandako gorabeherak, hondakinak behar bezala ez bereizteari lotutakoak.

5.2 LEGE-XEDAPENEN ARABERAKO INGURUMEN-JOKABIDEAK

5.2.1. INGURUMENAREN EREMUAN APLIKAGARRI DIREN LEGEZKO BALDINTZAK

Erakundeak, eskuduntza daukan erakundearen eskutik, aplikaziozko edo exentziozko ingurumen-baimenak dauzka, eta beroriek betetzen direnents aldizka identifikatzeko eta ebaluatzeko erregistroa ere ezarri du.

Horrez gain, erakundeak legeria eguneratzeko zerbitzua azpikontratatu du, eta zerbitzu horren bitartez gure sektoreari lotutako legeriari buruzko (xedapen berriak, aldaketak, etab) jakinarazpenak jasotzen ditugu. Horrek, legezko ardurei dagokienean, gure enpresaren ingurumenarekiko jokabide egokiaren jarraipena egitea ahalbidetzen digu.

Lege-xedapen nabarmengarrienak

OROKORRA:

1. 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra
2. 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, hainbat lege aldatu eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/CE Zuzentarauari egokitzeko. VIII. kapitulua, otsailaren 27ko 3/1998 Legea aldatzekoa; Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko lege orokorra.
3. 26/2007 Legea, urriaren 23koa, Ingurumen-erantzukizunari buruzkoa
4. 2090/2008 Errege Dekretua, 2008ko abenduaren 22koa, ingurumen-erantzukizunari buruzko 26/2007 Legearen garapen partzialerako araudia. (2008/12/23ko 308. BOE)
5. Abenduaren 22ko 2090/2008 Errege Dekretuaren akatsen zuzenketa. Ingurumen-erantzukizunari buruzko urriaren 23ko 26/2007 Legearen garapen partzialerako Araudia onartzen da.
6. 2/2011 Legea, martxoaren 4koa. Ekonomia Jasangarriaren Legea.
7. 183/2012 Dekretua, irailaren 25koa, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko dena.

ATMOSFERA

1. -34/2007 Legea, azaroaren 15koa, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkoa.
1. 100/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa. Atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen da eta aplikatzeko oinarrizko xedapenak ezartzen dira.
2. 1027/2007 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Eraikinetako Instalazio Termikoei buruzko araudia onartzen duena (2007ko abuztuaren 29ko BOE) (1751/1998 ED indargabetzen du).
3. 1826/2009 ED, azaroaren 17koa. Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua aldatzekoa (1027/2007).

HONDAKINAK

1. 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.
2. 833/1988 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, hondakin toxikoei eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Legea betearazteko Erregelamendua onartzen duena.
3. 952/1997 Errege Dekretua, ekainaren 20koa, maiatzaren 14ko 20/1986 Legea (Hondakin Toxiko eta Arriskutsuei buruzko Oinarrizkoa) betearazteko Araudia, uztailaren 20koa, 833/1988 Errege Dekretuaren bidez onetsia, aldarazten duena.
4. 76/2002 Dekretua, martxoaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzeko dena. (EHAA 75 zk. 2002ko apirilaren 22koa)

5. MAM/304/2002 Agindua, otsailaren 8koa, Hondakinen europar zerrenda eta hondakinak baloratu eta suntsitzeko operazioak argitara ematen dituena. (2002ko otsailaren 19ko 43. BOE)
6. 208/2005 Errege Dekretua, aparatu elektriko eta elektronikoaren eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoa. (2005eko otsailaren 26ko BOE, 49. zk.)
7. PRE/222/2009/ Agindua, otsailaren 6koa, 1406/1989 Errege Dekretuaren, zenbait substantzia eta gai arriskutsu (merkurioa daukaten neurgailuak) merkaturatzeko eta erabiltzeko mugak ezartzen dituenaren, I. eranskina aldarazten duena.
8. 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda desagerraraztea arautzen duena.
9. Bilboko Udal-Ordenantzak (111.BAO, 2000/06/10)
10. 11/97 Legea, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa.
11. 106/2008 Errege-Dekretua, 2008/02/01ekoa, pila eta metagailuei eta beroriekin lotutako hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa. (2008/02/12ko 37. BOE)
12. 943/2010 Errege-Dekretua, 2010/07/23koa, pila eta metagailuei eta beroriekin lotutako hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa den otsailaren 1eko 106/2008 Errege-Dekretua aldatzen duena. (2010/08/05eko 189. BOE)
13. 105/2008 ED, otsailaren 1ekoa, eraikuntza- eta eraispin-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena.
14. 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispin-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena. (49/2009 Dekretua aldatzen du)

URA

1. 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
2. Hondakin-urak Behe Nerbioiko saneamendu sistema orokorrean isurtzea eta ur horiek araztea araupezeko araudia (Bilbo Handiko Eskualdea) (BAO 63. zk., 1989/03/16koa).
3. 181/2008 Dekretua, azaroaren 4koa, Uraren Kanonaren Araubide Ekonomiko-finantzarioaren Araudia onartzekoa.

LURZORUAK

1. 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa.

ZARATAK

1. Ingurumena Babesteko Udal Ordenantza (111.BAO, 2000/06/10).

LEGIONELLA

1. 865/2003 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, legionelosiari aurea hartu eta hura kontrolatzeko higie-ne eta osasun alorreko irizpideak ezartzen dituena.

5.2.2. LEGEZKO BALDINTZAK ETA INGURUMEN IZAERAKO BESTE BALDINTZA BATZUK BETETZEA

BiE- Bilbo Eskualdeak aplikagarri zaion araudia betetzen du. Eskatutako ingurumeneko baimenak dauzka; besteak beste:

➤ **Jarduera lizentzia**

2008ko maiatzaren 20an Bilboko Udalak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari jakinarazi zion Bilbo Eskualdeko zentroetan garatzen den jarduera osasun egoeran titulartasun publikoko ekipamendua erabiltzea dela, eta, beraz, ez daukatela irekitze-lizentziaren derrigortasunik honako araudian jasotzen denez: Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren 5.2.22. artikuluan, Hirigintza Lizentziei eta beroien izapidetzeari buruzko Ordenantzaren 105. artikuluan eta 2/2006 Legearen, Euskadiko lurzoruari eta hirigintzari buruzkoaren, 207. artikuluan.

2008ko uztailaren 3an, Alonsotegiko Udalak jarduera-lizentzia eman zion Alonsotegiko osasun zentroari.

2010eko azaroaren 3an Bilboko Udalak Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari jakinarazi zion Indalecio Prieto kaleko 11. zenbakian dagoen Larreagaburu Osasun-Zentroan garatzen den jarduera osasun egoeran titulartasun publikoko ekipamendua erabiltzea dela, eta, beraz, ez daukala irekitze-lizentziaren derrigortasunik honako araudian jasotzen denez: Udal-Plan Orokorraren 4.22.22 artikuluan, Hirigintza Lizentziei eta beroien izapidetzeari buruzko Ordenantzaren 105. artikuluan eta 2/2006 Legearen, Euskadiko lurzoruari eta hirigintzari buruzkoaren, 207. artikuluan.

2013ko apirilaren 18ko Ebazpena, Bizkaiko Osasun Lurralde Zuzendaritzarena, Saralegiko Osasun Zentroari (Saralegi plaza, 8 Bilbao) instalazio eta funtzionamendurako lizentzia ematekoa. Bilboko Udaleko hirigintza arloan Sailkatutako Jardueren Aurretiazko Jakinarazpena egitea, Saralegiko Osasun Zentroari dagokionez (2013ko apirilaren 30ean).

➤ **Hondakin sanitarioak**

76/2002 Dekretua betez (Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzeko dena), 2008ko urriaren 28an Osasun Publikoko zuzendariaren Ebazpenaren kopia jaso zen, Bilbo Eskualdeko Osasun Zentroetako Hondakin Sanitarioak Kudeatzeko Plana onartu zuena.

Osasun Publikoko Zuzendariak 2011ko otsailaren 2an eman zuen Larreagaburu Osasun-Zentroko hondakinak Kudeatzeko Plana onartzeko Ebazpena.

Saralegiko osasun zentro berriko Hondakinak Kudeatzeko Planaren gaineko txosten sanitarioa, 2013ko maiatzaren 3koa.

➤ **Hondakin arriskutsuak**

2008ko urriaren 9an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordearen Ebazpena eman zen, zeinen bidez Bilbo Eskualdeko zentro guztiak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan inskribatuta gelditu ziren.

2011ko urtarrilaren 21ean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordearen Ebazpen bidez, Larreagaburuko Osasun-Zentroa Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan inskribatuta gelditu zen.

Ingurumen Administrazioiko zuzendariaren 2013ko maiatzaren 27ko Ebazpena, Osakidetza Bilbo Eskualdeko Saralegiko Osasun Zentroko Hondakin Sanitarioak Kudeatzeko Plana onartzeko; horren bidez, zentro hau Euskadiko Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroan inskribatuta gelditu zen.

➤ **Hondakin ez arriskutsuak**

2008ko ekainaren 30ean, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak Bilbo Eskualdea osatzen duten zentroak Industria Hondakin Geldoen Erregistroan inskribatzea baimendu zuen.

Saralegiko Osasun Zentroari alta eman zaio **IKS-eeM** sisteman (Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Informazioaren Kudeaketa Integralerako Sistema).

➤ **Isurketak**

2008ko irailaren 25ean, Uren Partzuergoak Kolektorerara Isurtzeko baimena ematea erabaki zuen, baita B motako erabiltzaile gisa sailkatzea ere.

2010eko ekainaren 2an, Bilbao Bizkaiko Uren Partzuergoko Isurketa-Sailak adierazi zigun Larreagaburuko Osasun-Zentroak kolektorerara isurtzeko baimena duela B motako erabiltzaile gisa.

2013ko apirilaren 16an, Bilbao Bizkaiko Uren Partzuergoko Isurketa-Sailak adierazi digu Saralegiko Osasun-Zentroak kolektorerara isurtzeko baimena duela, B motako erabiltzaile gisa.

BiE- Bilbo Eskualdea erakundeak ingurumenaren eremuan aplikagarri diren arauzko betebeharrak bete dituela aitortzen du eta ez duela zigorrrik jaso ingurumenari buruzko lege-urraketengatik.

6 INGURUMENARI LOTUTAKO BESTELAKO INFORMAZIO INTERESGARRIA

6.1 INGURUMENAREKIKO JOKABIDEA ERAKUNDEAREN BESTE EREMU BATZUETAN

BiEk konpromiso irmoa dauka gizarte eta ingurumeneko garapen iraunkorreko proiektuez kontzientziarazi eta horiek abiaraztearekin, eta erakundearen beste eremu batzuetan lan egiten du, pertsonalarekin zein herritarrekin oro har. Horietako zenbait jarraian deskribatuko dira:

- Ingurumenaren kudeaketari buruzko jardunaldiak, beharriaren arabera: zentroko ingurumen-kudeatzaileei zuzendutako prestakuntza pertsonalizatua, erregistroak hobetzen dituzten tresna informatikoen gainean (IKS aplikazioa); hondakinak kudeatzeko prestakuntza, auditoretzei buruzkoa, emergentzia eta simulakroen gainekoa, batzuetan Prebentzioko Oinarrizko Unitatearen beraren eskutik eta, beste batzuetan, kontratatutako enpresa baten bitartez. Ingurumen-legeak betetzeari buruzko ikastaroa, IHOBerekin koordinatuta.
- Bilbo Eskualdeko 8. Prestakuntza Jardunaldiak: 2012ko ekainean, *Suteak Prebenitzea. Zentroak Ebakutzeari* tailerra egin zen. Bilboko Udaleko Segurtasun Arloko Babes Zibileko Zuzendariordetza eman zuen, Osakidetza-Bilbo Eskualdeko Prebentzioko Oinarrizko Unitatearen laguntzarekin.
- Hondakinak kudeatzeari buruzko informazio orokorreko triptikoak banatu zaizkie gure zentroetan lan egiten duten langileei, gure erakundekoak izan edo besteren batekoak izan (OSATEK, ETS, Basurtuko Ospitalea, etab.).
- Intraneteko ingurumenaren atalean aldaketak egin dira. Komunikabide horrek erraztu egiten du langileei jakinaraztea zein diren erakundearen ingurumen-betebeharrak; aldi berean iradokizunak egiteko bidea ematen die **BiE**ko langileei eta Osakidetzako gainontzeko erakundeetakoiei.
- Sarean gaitutako "Ezagutzaren kudeaketa" (EZAGUTZA) eta HOBE+ plataformak garatu dira. EZAGUTZA ingurumen-atal bat dago, ingurumen-ezagutzak elkartrukatzeko ahalbidetzen duena. Atal horrek langileen parte-hartze aktiboa ahalbidetzen du, ingurumen-jokabidea hobetzeko funtsezko baliabide sustatzailea da, eta metodo egokia da kudeaketa-sistema erakundearen arrakastaz finkatzeko. Plataforma hau Osakidetzako gainerako profesionalen, 30.000tik gora diren horiei, zabaltzeko ahal izan dezaten. **HOBE+** plataforman denok azaldu ahal ditugu gure ideiak, gainerakoekin partekatu eta proiektu berritzaile bihurtu. Ingurumenaren gainean egindako ekarpenen artean, hauek daude: erosketa berdea Osakidetzan, energia-gastuan aurrezteko, ingurumen-jardunbide egokiak hedatzea, papera aurrezteko, inprimatze ekologikoa, altzariak elkartrukatzeko, etab.



- Gainera, langileek parte hartzen dute erakundearen ingurumen-jokabidea etengabe hobetzeko prozesuan, hainbat bidetatik: Ingurumen-ebaluazioak, egoera-azterketak, ikuskaritzak, batzordeak eta ingurumena hobetzeko taldeak. 2012an, hobekuntzako beste talde bat sortu da, "Orratzak edukiontzian utzi" izeneko programa aztertu eta gauzatzeko. Jarraibideak eman dira orratz-educiontzia entregatu eta jasotzeko, hainbat erabiltzailek etxean osasun-tratamenduaren barruan objektu zorrotz eta puntadunak erabiltzen dituzte eta.
- Eskualdeak parte hartu du **ALBOAN Fundazioak eta Gurutze Gorriak** antolatutako "**Eman zure mugikorra**" kanpainan: mugikorrak ematea eskatzen da, horien terminalak birziklatu eta berrerabiltzeko; horrela eskuratutako dirua ingurumen-, hezkuntza- eta garapen-proiektuetara bideratuko da. Eskualdeak 33,60 kg jaso ditu, zentroetako Puntu Berdeetako berariazko edukiontzietan.
- "Produktuen Bankua" izeneko material, altzari eta abarren elkartruckerako programaren pilotutza hasi da 4 zentroan (Errekalde, Santutxu, Deustu eta Etxaniz Suhiltzailea). Besteak beste, pentsatuta dago zenbait produktu gehiegi ez metatzeko, zentro txikietan bereziki, eta iraungitze-data gaiditzeagatik erabili ez den materiala baztertzeko.
- Erantzukizun Sozial Korporatiboko **BiEko** memoriak kanpoko erakunde batek egin eta egiaztatu ditu 2006tik orain arte, eta A+ sailkapena lortu da.



6.2 KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA HERRITARREI ETA INTERESATUTAKO BESTE ALDERDI BATZUEI

BiEn funtsezkoa deritzogu ingurumenari buruzko informazioari herritarren jokabidea hobetzeko. Hori dela eta, hainbat bide ditugu informazioa emateko:



- Bezereen arretarako eremuetan, erabiltzaileen esku: **Ingurumenari buruzko adierazpena** eta hondakinen kudeaketarekin zerikusia daukaten informazio orokorreko triptikoak eta beste kartel batzuk (**Puntu Berdeak**).
- **Begirada Batez-erabiltzaileak** buletineko informazioa (Informazio orokorreko buletina)
- Zentroetako itxaron-geletako telebista-pantailen bidez, Ingurumen-Jardunbide Egokiak sustatzen dira.
- Eskualdeko zentro guztietan iradokizunetarako postontzia dago. Erakundeak, interesa dutenen komunikazioak jaso, dokumentatu eta haiei erantzuteko prozedura ezarri du.

- Osakidetza OSANETen, Bilbo Eskualdearen ingurumen-jokabideari buruzko informazioa (ingurumenari buruzko adierazpena) herritarren esku jarri da.
- Bilbo Eskualdeak erabiltzaileen ingurumen-jokabidea hobetu nahian jarraitzen du, zentro guztietan herritarren esku hilerio jartzen diren Ingurumen-buletin informatiboen bidez.



- Zentro guztietako sarreretan, identifikazio-kartelekin seinalatzatuak, Puntu Berdeak daude. Bertan, erradiografiak, pilak, medikamentuak eta mugikorrek biltzeko eta bereizteko edukiontzi bereziak daude. Zentro bakoitzeko hallean daude kokatuta, eta Ingurumen-Kudeaketarako trakzio-eragina egiten dute gure profesionalentzat eta herritarrentzat oro har. Puntu Berde horiei papera, tonerra eta bestelako hondakinak bereizten diren tokiak gaineratzen zaizkie. Era horretan, hondakinak azaleratzea eta ondoren tratatzea edo birziklatzea (hala badagokie) sustatzen da.
- Sakelako egutegiak argitaratu dira, bertan zentroetako Puntu Berdeak agertzen direla.

PUNTU BERDEAK.-



Santutxuko OZ



- Erakundeak elkarrikketa irekia du herritarrekin eta interesa daukaten alderdiekin, bere jarduerak ingurumenean daukaten eraginari buruz. Helburua, herritarrentzat kezka-iturri diren alderdiak ezagutzea da. Horretarako, **auzo-elkarteekin, jubilatuekin, gaixotasunek eragindakoekin (diabetikoak, esklerosiak jotakoak...)** eta abarrekin egiten diren bilerak baliatzen dira. Elkarrikketa horietan, gure osasun-zentroetako puntu garbiak edo puntu berdeak aurkezten dira, eta erabiltzeko gomendioa egiten da.
- IHOBEko **BIAs – Ingurumen Adierazleen Datu-bankuan** parte hartzen jarraitzen dugu; banku horrek zentro bakoitzeko adierazleen azterketa zehatza egiten du eta horietan lortutako emaitzak erkatu.
- Lankidetzan aritzen gara **Bilboko Udaleko Aldaketa Klimatikoaren aurkako BIO bulegoarekin.**
- Bilerak egin ditugu hainbat aliatuekin, ingurumen-kudeaketa partekatzeko: Basurtuko Unibertsitate Ospitalea, Bizkaiko Emergentziak, Galdakao-Usansolo Ospitalea eta Mutuaia.
- **2011-2012ko Ingurumenaren Europar Saria Enpresa Publikoari**, Euskal Autonomia Erkidegoaren atalean.
- Finalista izan gara **Euskaliteko 400 Klubaren Jardunbide Egokiak 9. Topaketan**, ahozko komunikazio honekin: Jardunbide Egokiak Ingurumenaren Kudeaketan.



- “Zeladorea, ingurumen-kudeaketari irekitako leihoa” ahozko komunikazioa aurkeztu dugu **Zeladorean eta Arduradunen XII. Jardunaldi Nazionaletan eta Osakidetza Zeladorean IV. Jardunaldietan.**
- Idatzizko komunikazioa bidali da **Jasangarritasun eta ingurumenaren XIII. sarietara (GARRIGUES)**
- Ahozko komunikazioa: Aurrerapausoa Kudeaketa Sanitario Jasangarria **ASISTENTZIAREN KALITATEARI BURUZKO SEKA-ko BILTZARREAN.**



- **Forética-k**, enpresako erantzukizun sozialean lider diren enpresa eta profesionalen elkarteak, Osakidetza-Bilbo Eskualdea hautatu zuen **IV CSR MarketPlace**-n parte hartzeko. Ekitaldia Madrilgo Casa de Campo-ko Batzar Pabiloian egin zen, eta bertan enpresa-kudeaketako 50 konponbide bildu ziren, jasangarritasunaren eta erantzukizun sozialaren ikuspegitik garatutakoak. Bilbo Eskualdeak **“Klimarekin arduratsu”** kategoriaren barruan aurkeztu zuen bere Kudeaketa Sanitario Jasangarria.
- Ingurumena hobetzeko taldeko hainbat kidek parte hartu dute Eusko Jaurlaritzaren **“EcoEuskadi 2020”** ekimenean; honen helburua da Euskadi 2020ko garapen jasangarriko estrategia lantzea.

Hiritarren aldetik, ez da ingurumenari lotutako kexarik jaso.

6.3 6.3. HORNITZAILEEN INGURUMEN-JOKABIDEA

Erakunde Zentraleko Kontratazio Zuzendariordetzan izapideak egin dira, kontratazio-plegu korporatiboetan ingurumenari buruzko baldintzak jaso daitezen.

BiEk, bere aldetik, galdetegi bat baliatuz, hornitzaileen eta azpikontraten ingurumen-jokabidea ebaluatzen du.

Eskaintzak baloratzerakoan, ingurumenaren gaineko honako alderdiak hartzen dira kontuan:

- Hondakinak kudeatzea
- IHOBEren erosketa eta kontratazio publikoaren eskuliburua
- Material biodegradagarriak erabiltzea
- Energia eraginkortasunez erabiltzea
- Ingurumena Kudeatzeko Sistemak ezartzea

2012an, ingurumen-betebeharrak aplikatu dira garbiketako eta segurtasuneko lehiaketa publikoen garapenean.

6.4 INGURUMEN-KUDEAKETARAKO INBERTSIOAK

Ingurumen izaerako inbertsioak honakoak izan dira:

	EKINTZA	ERAGINA	OHARRAK	INBERTSIOA
Eskualdea	Barneko ingurumen-auditoretza (ATTEST)	Erakundearen ingurumen kultura handitzea	Sistema mantentzea	2.124,00
Eskualdea	Kanpoko auditoretza integratua AENOR	Erakundearen ingurumen kultura handitzea	Egiaztapena mantentzea	4.550,55
Eskualdea	Prestakuntza, 2 ikastaro hondakinez (ATTEST)	Erakundearen ingurumen kultura handitzea		1.200,00
Eskualdea: Altamira, Arangoiti, Begoña, Alde Zaharra, Abusu, San Otxarkoaga, San Adrian, San Inazio, Zorroza	Autobabesa kudeatzeko prestakuntza Simulakroak lehen esku-hartzeko taldeekin.	Suteek eragindako arriskuak eta ingurumenerako ondorioak prebenitzea	Emergentzietarako prestakuntza	36.378,89
Indautxu, Deustu, Basurtu, Larreagaburu	Aire girotua jartzea	Energia-kontsumoak		46.633,86
Deustuko OZ eta Errekalde	Amianto kentzea (artxiboa, aparkalekua)	Arriskutsuak izan daitezkeen materialak kentzea		8.240,32
Santutxu	Erradiadoreetako giltzak aldatzea	Kontsumoak erregulatzea		12.366,40
Santutxu	Erradiadoreetako giltzak aldatzea	Kontsumoak erregulatzea		8.698,47
Errekalde	solairuko terraza iragazgaiztea			22.218,00
Eskualdea	Euskalit/Club 400-ko Jardunbide Egokien 9. Topaketa (jardunbide egokiari buruzko bideoa)	Erakundearen ingurumen kultura handitzea		1.770,00
Eskualdea	Estatuko Zeladore eta Arduradunen XII. Jardunaldiak	Erakundearen ingurumen kultura handitzea	Pertsona bat	350,00
Eskualdea	Jasangarritasun eta ingurumenaren XIII. sariak (GARRIGUES)	Erakundearen ingurumen kultura handitzea		0,00
Eskualdea	ASISTENTZIAREN KALITATEAREN SECA-ko BILTZARRA	Erakundearen ingurumen kultura handitzea	2 pertsona	780,00
Eskualdea	MARKETPLACE FORÉTICA	Erakundearen ingurumen kultura handitzea	Inskripzioa + estatua, pertsona	703,40
Indautxuko EAG	Berokuntza independizatzea	Errendimenduaren hobekuntza eta energia-kontsumoaren		4.312,37

murritzeta					
Errekalde	Ur	beroa	Errendimenduaren	hobekuntza	7.405,20
	independizatzea		eta kontsumoaren	murritzeta	
Larreagaburu	Leihoetan	eguzkitik	Errendimenduaren	hobekuntza	742,26
	babesteko	xafiak	eta kontsumoaren	murritzeta	
	jartzea				
Otxarkoaga	Sabai-leihoak		Errendimenduaren	hobekuntza	7.187,40
	konpondu	eta	eta kontsumoaren	murritzeta	
	isolatzea			Energia- eraginkortasunaren azterketa	
Basurtu	Airetik	babesteko	Energia-kontsumoaren		2.697,77
	manpara hallean		murritzeta		
Guztira					168.358,89

6.5 INGURUMENARI LOTUTAKO GERTAERAK

2012ko urtarrilean, urak Otxarkoagako OZko paper-biltegia hartu zuen, Euskaltel telefono-enpresaren moduluko estolda-zuloa buxatu egin zelako; egoera kontrolatu zenean, garbiketa egin eta hondakinak kendu ziren.

Honetatik aparte, ez da beste gertaera aipagarririk izan.

6.6 2013rako erronkak

BiEn uste dugu **berrikuntza etorkizunari begirako erronka** dela eta, egungo gizartea eta datozen belaunaldiak aintzat hartuta, **iraunkortasunaren eta ingurumenarekiko errespetuaren** gaineko irizpide argiak izanda egin behar dela. Ildo horretan, hobekuntzarako proiektuak planteatzen jarraitzen dugu. Jakin badakigu batzuk epe luzera planteatu behar direla, kontuan hartu behar baita zentro asko direla eta beraietako bakoitzean ezberdinak direla bai kontzientzia-maila bai gauzatzeko aukerak. Hona hemen 2013an zentroetan garatu nahi diren erronkak:

1. Hondakin biosanitarioak %1 murriztea
2. Pilen kontsumoa %1 murriztea
3. Elektrizitatearen kontsumoa %0,2 murriztea
4. Hondakinen bereizketa hobetzea ("zabor orokor" gisa bildutako hondakinen kantitatea %1 murriztea)
5. Erabiltzaileek etxeko hondakin zorrotzekin izandako gorabehera-kopurua, 4 baino gutxiago izatea.
6. RAEEko hondakinak (aparatu elektronikoak) %2 murriztea
7. Gas-kontsumoa %0,2 murriztea
8. A-Z karpeten kontsumoa %1 murriztea
9. Langileek ingurumenaren kudeaketaren arloan duten kontzientziazioa eta inplikazioa hobetzea (ingurumen-jardunbide egokiak betetzea)

10. Profesional guztien inplikazioa areagotzea ingurumen-kudeaketari dagokionez. Piztutako ekipoak %25 edo gutxiago izatea.

11. Galdaretako gasolio-kontsumoa %0,2 murriztea

12. Lanpara-hondakinak %2 murriztea

13. Garbiketako ontzi arriskutsuak baztertzea

14. Automozioko gasolio-kontsumoa %1 murriztea

15. Ur-kontsumoa %1 murriztea

16. Folioen kontsumoa %0,5 murriztea.

Horiez gain, ISO 14064 egiaztapenaren balorazioa, Eskualdea osatzen duten zentroetarako.

BiE- Bilbo Eskualdeak bere jarduera areagotu du, Saralegi auzoan osasun-zentro bat zabaldu du eta. Horrela, inguru horretako biztanleek (5.000 inguru) ez dute aldameneko auzoetako zentroetara joan beharrik izango. Zentro horretako langileak Eskualdeko beste zentro batzuetatik etorri dira nagusiki (Mesedeetakotik...), eta zentrook ingurumen-jokabidearen hobekuntzarekin sentsibilizatuta daude. Hori dela eta, zentro berrian, Eskualdeko Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren arabera hobekuntza-ekintzak ezartzen ari dira.

7 DATUAK ZENTROKA (ERANSKINA)

Zentroetan kontsumitutako edo sortutako kopuru txikiak kontuan hartuta, zentro bakoitzeko kontsumoei eta hondakinei dagozkien datuak kilogramo eta kilowattetan adierazten dira.

Eranskinetako zentro bakoitzeko datuak interpretatzeko legenda

*ESANG: ingurumen alderdi esanguratsua ebaluazioan

EZ ESANG: ingurumen alderdi EZ-esanguratsua ebaluazioan

ZG: zehaztu gabea

Oinarrizko adierazleei buruzko datuak, **gelaxka lila-moreetan** seinalatzen dira.

Zentroka planifikatutako helburuak:

- Azken 2 urteetako % konparazio-balioa berdez seinalatuta: **helburua lortu da**
- Azken 2 urteetako % konparazio-balioa gorritz seinalatuta: **helburua ez da lortu**

Eskualde-mailako ingurumen-alderdien ebaluazioa:

Oskualdea Service Vasco de salud BILBOKO ES ESKUALDEA COMARCA DE BILBAO BILBOKO ES ESKUALDEA		INGURUMEN-ALDERDIEN EBALUAZIOA						Rev.0
						2012ko datuak		2013ko
						esanguratsuenak		
OSAKIDETZA COMARCA BILBAO - BIE								
Jarduera	Alderdi-mota	Egoera	Zuzena / Zeharkakoa	Ingurumen-alderdia	M/GP	I/OL	EM	
Administrazio-jarduerak / Bulegoa eta zerbitzu orokorrak	Lehengaien eta lagungarrien kontsumoa	normala	Zuz	Folioak	3	1	3	
Administrazio-jarduerak / Bulegoa eta zerbitzu orokorrak	Lehengaien eta lagungarrien kontsumoa	normala	Zuz	Inprimagailu / fotokopiagailu / drum tonerra	3	1	3	
Administrazio-jarduerak / Bulegoa eta zerbitzu orokorrak	Lehengaien eta lagungarrien kontsumoa	normala	Zuz	Plak eta bateriak	1	2	2	
Administrazio-jarduerak / Bulegoa eta zerbitzu orokorrak	Lehengaien eta lagungarrien kontsumoa	normala	Zuz	Inprimagailu-kartuxoa	2	1	2	
Osasun-jarduerak	Lehengaien eta lagungarrien kontsumoa	normala	Zuz	MEDIKAMENTUAK	1	2	2	
Osasun-jarduerak	Lehengaien eta lagungarrien kontsumoa	normala	Zuz	APOSITUAK	1	2	2	
Osasun-jarduerak	Lehengaien eta lagungarrien kontsumoa	normala	Zuz	TIRAK	1	2	2	
Osasun-jarduerak	Lehengaien eta lagungarrien kontsumoa	normala	Zuz	ORRATZAK, XIRINGAK ETA TUTUAK	1	2	2	
Osasun-jarduerak	Lehengaien eta lagungarrien kontsumoa	normala	Zuz	BENDAK ETA GAZAK	1	2	2	
Osasun-jarduerak	Lehengaien eta lagungarrien kontsumoa	normala	Zuz	BESTELAKO MATERIAL SANITARIOA	1	2	2	
Osasun-jarduerak	Lehengaien eta lagungarrien kontsumoa	normala	Zuz	BESTELAKO MATERIALA	1	2	2	
Osasun-jarduerak	Lehengaien eta lagungarrien kontsumoa	normala	Zuz	Desinfekzio-produktuak (instrunet)	1	1	1	
Orokorra	Ur-kontsumoa	normala	Zuz	URTEKO UR-KONTSUMOA GUZTIRA	2	1	2	
Orokorra	Argindar-kontsumoa	normala	Zuz	Energia elektrikoa	1	2	2	
Orokorra	Erregai-kontsumoa	normala	Zuz	Galdara-gasa	3	3	9	
Orokorra	Erregai-kontsumoa	normala	Zuz	Galdara-gasolia	3	3	9	
Orokorra	Erregai-kontsumoa	normala	Zuz	Ibilgailu-erregaia	3	3	9	
Orokorra	Hondakin arriskutsuak	normala	Zuz	RAEE (inprimagailuak, ordenagailuak, etab...)	1	3	3	
Orokorra	Hondakin arriskutsuak	normala	Zuz	Plak eta bateriak	1	3	3	
Orokorra	Hondakin arriskutsuak	normala	Zuz	Erradiografiak	1	3	3	
Orokorra	Hondakin arriskutsuak	normala	Zuz	Zorrotzak eta puntadunak	1	3	3	
Orokorra	Hondakin arriskutsuak	normala	Zuz	Lanpara fluoreszenteak	3	3	9	
Orokorra	Hondakin arriskutsuak	normala	Zuz	Zitostatikoak	1	1	1	
Orokorra	Hondakin arriskutsuak	normala	Zuz	Baztertutako medikamentuak	1	3	3	
Orokorra	Hondakin arriskutsuak	normala	Zuz	Garbiketa-ontzi arriskutsuak	1	3	3	
Orokorra	Bereizitako hondakinak	normala	Zuz	Tinta eta toner kartuxoak	1	1	1	
Orokorra	Bereizitako hondakinak	normala	Zuz	Papera eta kartoia	1	1	1	
Orokorra	Hiri-hondakin solidoak	normala	Zuz	Hondakin higienikoak (komunak)	1	2	2	
Orokorra	Hiri-hondakin solidoak	normala	Zuz	Bereizi gabeko hiri-hondakinak	1	2	2	
Orokorra	Ur-isuria	normala	Zuz	Ur-isuria	2	1	2	
Orokorra	Zaratak eta bibrazioak	normala	Zuz	Zaratak	1	1	1	
Orokorra	Atmosferarako isuriak	normala	Zuz	Galdara-isuriak	3	1	3	
Orokorra	Atmosferarako isuriak	normala	Zuz	Kontsumitutako argindarra sortzeak eragindako isuri zuzenak	1	2	2	
Orokorra	Hiri-hondakin solidoak	anormala	Zuz	Eraikuntza eta eraispen hondakinak	1	2	2	
Orokorra	Hiri-hondakin solidoak	anormala	Zuz	Tamaina handiko hondakinak (altzariak)	1	2	2	
Orokorra	Erabiltzaileen ingurumen-jokabidea	zeharkakoa	Zeh	Erabiltzaileen ingurumen-jokabidea	2	0	0	
Orokorra	Horitzaileen ingurumen-jokabidea	zeharkakoa	Zeh	Horitzaileen ingurumen-jokabidea	2	0	0	
Orokorra	Kanpo-analisirako laborategiko horitzaileen ingurumen-jokabidea	zeharkakoa	Zeh	Kanpo-analisirako laborategiko horitzaileen ingurumen-jokabidea	2	0	0	
Orokorra	Lehen mailako arretakoa ez den pertsonalaren ingurumen-jokabidea	zeharkakoa	Zeh	Lehen mailakoa ez den pertsonalaren ingurumen-jokabidea	2	0	0	
Orokorra	Atmosferarako isuriak	Emergentzia: leherketa			1	1	1	
Orokorra	Hondakin arriskutsuak	Emergentzia: leherketa			1	1	1	
Orokorra	Hondakin geldoak	Emergentzia: leherketa			1	1	1	
Orokorra	Hondakin geldoak	Emergentzia: sutea			1	1	1	
Orokorra	Hondakin arriskutsuak	Emergentzia: sutea			1	1	1	
Orokorra	Sutea itzaltzeki datozen isuriak	Emergentzia: sutea			1	1	1	
Orokorra	Atmosferarako isuriak	Emergentzia: sutea			1	1	1	
Orokorra	Hondakin ez-arriskutsuak	Emergentzia: uholdea			2	1	2	
Orokorra	Uholde-isuriak	Emergentzia: uholdea			3	1	3	
Orokorra	Legionellosis kasu(K)	Emergentzia: Legionellosis			1	1	1	
Orokorra	Atmosferarako isuriak	Emergentzia: Gas hozgarriaren ihesak			1	1	1	
Orokorra	Hondakin arriskutsuak	Emergentzia: Substantzia, hondakin arriskutsu edo erregai isuria			1	1	1	
Orokorra	Isuriak	Emergentzia: Substantzia, hondakin arriskutsu edo erregai isuria			1	1	1	

OSAKIDETZAKO BiE COMARCA BILBAO

Lantokia: ALONSOTEGI

INGURUMEN-ALDERDIA		KANTITATEA	ADIERAZLEA	KANTITATEA	ADIERAZLEA	ADIERAZLEAREN KONPARATIBA %	AZIOA ESANGURAT
Materialak eta produktuak		2011	2011 adierazlea	2012	2012 adierazlea	%	ESANG/EZ ESANG
Arrisksuak ez diren materialak eta produktuak kontsumitzea							
Administrazio/bulego eta zerbitzu orokorretako jarduera							
Folioak	Kg	249,000	0,0072	298,800	0,00928	28,41	EZ ESANG
Inprimagailu/ ordenagailu/ drum-etako tonerr	Kg	8,008	0,0002	8,008	0,00025	7,01	EZ ESANG
Pilak eta bateriak	Kg	0,000	0,0000	0,000	0,00000	0,00	EZ ESANG
Inprimagailuetako kartutxoak	Kg	0,000	0,0000	0,000	0,00000	0,00	EZ ESANG
Jarduera sanitarioak							
MEDIKAMENTUAK	Kg	58,570	0,0017	33,066	0,0010	39,59	EZ ESANG
APOSITUAK	Kg	26,790	0,0008	25,675	0,0008	2,55	EZ ESANG
TIRAK	Kg	4,539	0,0001	9,335	0,0003	120,09	EZ ESANG
ORRATZAK, XIRINGAK ETA HODIAK	Kg	1.480,866	0,0430	875,811	0,0272	36,71	EZ ESANG
BENDAK ETA GAZAK	Kg	26,131	0,0008	44,746	0,0014	83,23	EZ ESANG
BESTELAKO MATERIAL SANITARIOA	Kg	159,692	0,0046	348,045	0,0108	133,22	EZ ESANG
BESTELAKO MATERIALA	Kg	321,551	0,0093	710,756	0,0221	136,53	EZ ESANG
Hainbat materialen urteko masa gastua	kg	2.335.148	0,0678	2.354.241	0,0731	7,88	EZ ESANG
Substantzia arrisksuen kontsumoa							
INSTRUNET LIK.DESINF.ESPORIZIDA 350ML	Kg	0,000	0,0000	0,000	0,0000	0,00	EZ ESANG
INSTRUNET XABOI EZ ENTZIMATIKOA	Kg	0,000	0,0000	0,000	0,0000	0,00	EZ ESANG
Ur kontsumoa		2011	2011 adierazlea	2012	2012 adierazlea		
Urteko ur kontsumoa guztira	m³	151.000	0,0044	91.000	0,0028	35,51	EZ ESANG
Energia kontsumoa		2011	2011 adierazlea	2012	2012 adierazlea		
Argindarra	kWh	38.372,000	1,1141	44.302,990	1,3764	23,55	EZ ESANG
Galdaretako gasa	kWh	0,000	0,0000	0,000	0,0000	0,00	EZ ESANG
Energia kontsumo zuzena guztira	Kwh	38.372,000	1,1141	44.302,990	1,3764	23,55	EZ ESANG
Hondakinak		2011	2011 adierazlea	2012	2012 adierazlea		
Urtean sortutako hondakin arrisksutsuak guztira	kg	301,710	0,0088	176,810	0,0055	37,29	EZ ESANG
RAEEak (inprimagailuak, ordenagailuak, eta :	Kg	0,000	0,0000	0,000	0,0000	0,00	EZ ESANG
Pilak eta bateriak	Kg	20,900	0,0006	24,000	0,0007	22,88	EZ ESANG
Erradiografiak	Kg	65,000	0,0019	0,000	0,0000	100,00	EZ ESANG
Ebakitzialeak eta ziztatzaileak	Kg	198,000	0,0057	105,000	0,0033	43,25	ESANG
Lanpara fluoresenteak	Kg	0,810	0,0000	0,810	0,0000	7,01	EZ ESANG
Zitostatikoak	Kg	32,000	0,0009	17,000	0,0005	43,15	EZ ESANG
Iraungitako medikamentuak	Kg	50,000	0,0015	30,000	0,0009	35,80	EZ ESANG
Garbiketa ontzi arrisksutsuak	Kg	0,000	0,0000	0,000	0,0000	0,00	EZ ESANG
Bereizitako hiri hondakinak	Kg	392,950	0,0114	229,000	0,0071	37,64	EZ ESANG
Tinta eta toner kartutxoak	Kg	11,500	0,0003	0,000	0,0000	100,00	EZ ESANG
